

FERMIN LASALA ETA XIX.MENDEKO FORU ERREGIMENA

Zuzenbide Gradua

2016/2017 Ikasturtea

Unai Etxeberria Iriondok egindako lana

Juan Luis Arrieta Alberdik zuzendutako lana

AURKIBIDEA

1. **SARRERA. LANAREN ZERGATIA ETA HELBURUAK**
2. **FERMIN LASALA Y COLLADOREN BIOGRAFIA**
3. **OBRA IDATZIA**
4. **EBOLUZIO POLTIKOA**
5. **NAZIOARTEKO IKUSPEGI KONPARATIBOA**
6. **FORUEI BURUZKO IRITZIA**
7. **XIX.MENDEKO TALDE POLTIKOEI BURUZKO IKUSPEGIA**
8. **EUSKAL FORUAK ETA XIX. MENDE HASIERAKO KONSTITUZIOAK
FERMIN LASALAREN ANALISIAREN ARABERA**
9. **1876ko UZTAILAREN 21EKO LEGEA ETA EUSKAL FORUEN
DEUSEZTAPENA**
10. **KONTZERTU EKONOMIKOA ETA BERE BILAKAERA**
11. **KONKLUSIOAK**

1. **SARRERA. LANAREN ZERGATIA ETA BERE HELBURUAK**

Gradu Amaierako Lan honen helburua XVIII. mendearen amaieratik XIX. mendearen amaiera arteko Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruen historiak eta lurralde horietako autonomiak izan zituen aldagetak aztertzea da. Horretarako, bertan 1789ko iraultza frantsesaren ondoren euskal foruak erregimen desberdinetan eduki zuten egoera, 1876 eta 1877 urteen artean euskal foruen galerak ekarri zuen foruen krisia eta horren ondoren sortu zen kontzertu ekonomikoa aztertuko ditut.

Lan hau, gehienbat, Fermin Lasala y Colladok, Mandaseko dukeak, historiaren zati honi buruz idatzitako *Última Etapa de la Unidad Nacional* liburuan oinarrituta dago. Liburu horretan, bere egileak, 1789ko iraultza frantsesaren ondoren, euskal foruek XIX. mendean izan zuten bilakaera eta, garai hartan, euskal foruen inguruan egon ziren gatazkak aztertzen ditu.

Fermin Lasala y Collado euskal foruen XIX. mendearen bigarren erdiko euskal politikari garrantzitsuenetako bat izan zen. Gipuzkoako Ahaldu Nagusia izan zen, horretaz gain, 1876an Espainiako Kongresuan diputatu izan zen eta foruak deuseztatu zituen Canovas del Castillo Espainiako gobernuburuarengandik gertu egon zen.

Horren ondorioz, Lasala XIX. mendearen bigarren erdian foruen inguruan zeuden gatazken, hirugarren gerra karlistaren ondoren Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruen inguruan eman zen krisiaren eta krisi hau eragin zuten arrazoien, bilakaeraren eta ondorioen lekuko zuzena izan zen. Hori dela eta, idazle honek *Última Etapa de la*

Unidad Nacional liburuan lan honetako gaiari buruz informazio oso garrantzitsua ematen du. Liburu honetan foru erregimenaren bilakaerari buruz ematen den informazioa prozesu hori ikusi zuen eta bertan parte hartu zuen pertsona batek bakarrik azaldu zezakeen informazioa delako. Horretaz gain, lan honetan Fermin Lasalaren biografia eta bere ezaugarriak aztertu dira, bere liburua eta bertan idazten duena kontestualizatzeko eta hobeto ulertzeko.

2. FERMIN LASALA Y COLLADOREN BIOGRAFIA

Fermin Lasala y Collado 1832 urtean Donostian jaio zen¹. Bere familiak Donostiako bizitza politiko eta ekonomikoan garrantzia handia zuen klase altuko familia aberatsa izan zen. Bere aita Fermin Lasala y Urbietta merkataria izan zen eta politikan ere jardun zuen. Aita bere karrera politikoan zehar, Donostiako alkatea, Gipuzkoako Diputazioko kidea eta Espainiako Kongresuko diputatua izatera iritsi zen². Fermin Lasala y Colladoren ama Rita Collado izan zen eta Donostiako merkataria familia aberatsenetako baten kidea izan zen³. Fermin Lasala y Colladoren ikasketei dagokionez, zuzenbidea ikasi zuen⁴.

1859an nobleen familia batetik zetorren Cristina Brunettirekin ezkondu zen.. Ezkontza horren bitartez Fermin Lasalak 1884an Mandaseko duke eta Villanuevako duke tituluak lortu zituen⁵.

Fermin Lasalak 1857an bere karrera politikoa hasi zuen⁶, bere bizitzako zati handienez politikan jardun zuen eta, bere bizitza politikoan zehar, kargu garrantzitsuak izan zituen. 1857 eta 1869 urteen artean Gipuzkoako Batzar Nagusien kide izan zen, Donostiako ordezkari bezala. 1862 eta 1863 urteen artean Gipuzkoako Ahdun Nagusia izan zen⁷.

Fermin Lasalak Espainiako politikan ere parte hartu zuen eta, Isabel II.aren erregealdian, 1857 eta 1869 urteen artean hainbat aldiz Espainiako Gorteetako kide izan zen. Epe horretan, diputatu bezala Gipuzkoa eta Donostiako barrutiak ordezkatu zituen⁸.

¹ RILOVA JERICÓ, Carlos, *Vida del Duque de Mandas(1832-1917)*, Donostia: Kutxa Fundazioa, 2008, 23.or.

²*Ibidem*, 185-188.or.

³*Ibidem*, 30.or.

⁴*Ibidem*, 39.or.

⁵*Ibidem*, 40.or.

⁶ LASALA Y COLLADO, Fermín, *Última etapa de Unidad Nacional*, Madrid: Academia de Ciencias Políticas y Morales, 1924,1,348.or.

⁷ RILOVA, *Vida del Duque de Mandas*, 191-193.or.

⁸*Ibidem*, 21.or.

Seiurteko demokratikoan zehar ere Fermin Lasala hainbat aldiz Espainiako parlamentuko kide bezala aukeratu zuten. 1869. urtean Burgoseko barrutitik diputatu bezala aukeratu zuten. Horren ondoren, ondorengo hauteskundeetan Donostiako barrutitik diputatu bezala aukeratu izan zen. 1873an Errepublika aldarrikatu eta ondoren egin ziren hauteskundeetan ez zuen parte hartu⁹.

Borboien errestituzioaren ondoren, 1876 eta 1877 urteen artean berriz Diputatuen Kongresuko diputatu izan zen Gipuzkoa ordezkatzuz. 1877an biziarteko senatari bezala izendatu zuten eta 1885ean organo horretako lehendakariordea aukeratu izan zen¹⁰. 1879 eta 1881 urteen artean Canovas del Castillok zuzentzen zuen Espainiako Gobernuaren ministroa izan zen¹¹. 1882an Zientzia Politiko eta Moralen Errege Akademiako kide bilakatu zen¹².

Horretaz gain, enbaxadore bezala ere jardun zuen Frantzia eta Erresuma Batuko Gobernuen aurrean Espainiako Gobernuaren ordezkatzuz. Fermin Lasalak 1890 eta 1892 urteen eta 1895 eta 1897 urteen artean Parisen enbaxadore bezala jardun zuen eta 1900 eta 1905 urteen artean Londresen¹³.

Fermin Lasalak beste kargu garrantzitsu batzuetan ere lan egin zuen. 1906an Estatu Kontseiluko kide bilakatu zen. 1913 eta 1915 urteen artean eta 1917an azken organo horretako presidentea bilakatu zen¹⁴.

Mandaseko dukeak negozioetan ere jardun zuen. 1853an bere aita hil zenean bere herentzia utzi zion eta gizon oso aberatsa bilakatu zen. Hori eta gero, bere bizitzan zehar sektore ekonomiko desberdinetan inbertitu zuen, bere negozioetatik aipagarrienetako bat burdinbideen eraikuntzan diru asko inbertitu zuela izan zen. Hil baino lehenago, Fermin Lasalak bere aitarengatik jasotako herentzia handitu zuen¹⁵.

Fermin Lasala 1917ko abenduaren 17an Madrilén hil zen. Seme-alabarik ez zuenez, Gipuzkoako Aldundia bere oinordeko izendatu zuen eta Cristina Enea izeneko bere finka Donostiako hiriarri utzi zion¹⁶.

⁹LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 422-424.or.

¹⁰RILOVA, *Vida del Duque de Mandas*, 244,257,421.or.

¹¹*Ibidem*, 259,275.or.

¹²LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 494.or.

¹³RILOVA, *Vida del Duque de Mandas*, 21,281-282.or.

¹⁴*Ibidem*, 421,423-424.or.

¹⁵*Ibidem*, 94,98,112,198.or.

¹⁶*Ibidem*, 423-433.or.

3. OBRA IDATZIA

Fermin Lasala idazle bezala ere aritu zen eta gai politiko eta historikoei buruzko hiru liburu idatzi zituen. Bere lehenengo liburua 1878an idatzi zuen, *Vicisitudes de la Monarquía constitucional de Francia*. Horren ondoren, 1895an *La separación de Guipúzcoa y la paz de Basilea* idatzi zuen¹⁷. Liburu hau 1793 eta 1795 urteen artean Konbentzioren Gerran Gipuzkoan gertatutako gertakariei buruzkoa da eta, garai hartan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Frantziaren laguntzarekin lurraldearen independentzia lortzeko egin zuen saiakerari buruz ari da.

Bere azkenengo liburua *Última Etapa de la Unidad Nacional: los Fueros vascongados en 1876* izan zen. Liburu hau bi liburukitan banatuta dago eta 1924. urtean argitaratu zen, bere egilea hil eta zazpi urte gerora.

Última etapa de la Unidad Nacional liburua iraultza frantsesa gertatu ondoren euskal foruek izan zituzten aldaketei buruzkoa, XIX. mendearen amaieran gertatu zen foruen bilakaera eta, horren ondoren, euskal lurraldeak geratu ziren egoeraren eta kontserbatu zuten autonomia mailari buruzkoa da. Liburu honek XIX. mendean zehar foruen sistemak izan zituen eraldaketei eta beren desagerpenari buruzko informazio asko ematen du. Horren ondorioz, *Última etapa de la Unidad Nacional* iturri bezala gaiari buruzko informazio garrantzitsua ematen du.

Hala ere, *Última Etapa de la Unidad Nacional*-en azaltzen diren ekintza historikoak subjektiboki idazten dira, autoreak, liburuan zehar, askotan bere iritzi politikoak azaltzen ditu eta bere ikuspuntuetan oinarritutako balorazioak egiten ditu. Liburu honetako informazioa irakurtzean ikuspuntu ideologiko batetik idazten dela kontuan hartu behar da. Fermin Lasalaren arabera, euskal lurraldeetan liburuan agertzen diren gertakariei buruzko kontzeptu okerra dago eta, liburu honen helburuetako bat, egilearen iritzian gertakari horiei buruzko bertsio okerrak zuzentzea da¹⁸.

4. EBOLUZIO POLITIKOA

Fermin Lasalak bere bizitza politiko osoan ideologia liberalekoa izan zen eta beti beren burua liberala bezala definitzen zuten alderdi politikoaren kide izan zen. Hala ere, bere bizitzan zehar ideologiak aldaketak izan zituen eta gero eta postura politiko kontserbadoreagoak defendatuz joan zen.

¹⁷ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 494.or.

¹⁸*Ibidem*, I, VII.or.

Fermin Lasalaren aita, Fermin Lasala y Urbietta, ideologikoki liberal progresista izan zen¹⁹. Bere semea ere, hasieran, ideia liberal progresisten aldekoa zen eta 1854 eta 1856 urteen artean Espainiako gobernu progresistaren alde egin zuen. Garai horren ondoren, eskuinagoko postura politikoak defendatzen hasi zen eta Leopoldo O'Donnell jeneralak zuzentzen zuen Union Liberal alderdiaren kide izan zen. Izan ere, karrera politikoa alderdi horren barruan hasi zuen.

1868 eta 1874 urteen artean, Fermin Lasala y Collado ideologia liberal progresistan oinarritutako 1868ko iraultzaren eta seiurteko demokratikoaren aurka agertu zen. Garai hartan, Lasalak Borboien errestituzioaren alde egin zuen eta Canovas del Castillok zuzentzen zituen monarkiko alfonsinoekin bat egin zuen. Garai honetan, parlamentuko kide izanik, Amadeo de Saboya errege bezala ezartzearen aurka eta lehenengo Errepublikaren ezarpenaren aurka botatu zuen²⁰.

1874an hasi zen Errestituzio Borbonikoaren alde egin zuen eta Canovas del Castillok zuzentzen zuen Alderdi Liberal-kontserbatzailearen kide bihurtu zen. Canovas del Castillok ezarri zuen sistema politikoarekin bat egin zuen. Borboien errestituzioaren garaian, Fermin Lasalak bere burua monarkiko eta dinastiko kontsideratzen zuen eta Canovasek Espainian monarkia legitimoa eta konstituzionala berrezarri zuela eta Espainia krisi handi batetik atera zuela pentsatzen zuen²¹.

Horretaz gain, euskal nazionalismoaren aurka agertu zen eta, ideologia honen aurrean, nazionalismo espainiarraren alde egin zuen. Horren arabera, arlo politikoan garrantzitsuena Espainiaren batasuna zela defendatzen zuen, Espainia zuzentzen zuen erregimen politikoa baino garrantzitsuagoa²².

Horren arabera, Mandaseko dukea independentismoaren aurka agertzeaz gain, lurralde antolamendu federal baten aurka ere agertzen zen, horrek Espainiaren Batasuna hautsiko lukeelako. Bere iritziz, Espainian Monarkia Federal bat izatea Errepublika Unitario bat izatea baino okerragoa izango zen²³.

5. NAZIOARTEKO EGOERAREN IKUSPEGI KONPARATIBOA

Fermin Lasalaren arabera, estatuen lurralde antolamenduari dagokionez, Europako eta Amerikako XIX. mendeko joera estatuak batzea eta estatuen batasuna eta zentralizazioa handitzea eta heterogeneotasuna murriztea izan zen. *Última etapa de la*

¹⁹LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 348.or.

²⁰RILOVA, *Vida del Duque de Mandas*, 227,246.or.

²¹LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 337.or.

²²*Ibidem*, I, 335-338.or.

²³*Ibidem*, I, 9.or.

unidad nacional liburuan, iritzi hori berresteko mende horretan Frantziaren batasuna handitu zela, Alemania eta Italia batu zirela, Suitzako Kantoiaren autonomia gutxitu zela, Errusiar Inperioaren barnean Finlandia eta Poloniaren autonomia gutxitu zela eta Estatu Batuetako Gerra Zibilean Hegoaldeko Estatuaren independentzia nahi zuten Konfederatuek gerra galdu zutela esaten du²⁴.

6. FORUEI BURUZKO IRITZIA

Fermin Lasala euskal foruak mantentzearen alde zegoen baina foruak mantentzeko garai horretako egoerara egokitu behar zirela pentsatzen zuen. 1789ko iraultza frantsesaren eta iraultza honek eragindako aldaketen ondoren, foruek Aintzineko Erregimenaren garaian bezala ezin zirela kontserbatu pentsatzen zuen. Gainera, garai hartan, Espainiako Gobernuak foruen aurka jarrera zuela pentsatzen zuen eta, faktore horrek eta liberalismoak foruen aurka zuen jarrerak euskal foruak arriskuan jartzen zituela usten zuen²⁵. Hori zela eta, foruak murriztu behar zirela defendatzen zuen.

XIX. mendea baino lehenago, euskal lurraldeek ez zioten Espainiako Gobernuari dirua eman behar estatuaren gastuak sustatzeko, ez zuten Espainiako armadan soldaduska egin behar eta, horretaz gain, Euskal Herria eta Espainiaren artean muga-zergak zeuden. Mandaseko dukearen arabera, foruen elementu horiek desagertu egin behar ziren, XIX. mendean, euskal lurraldeek ezin zutelako Espainiako Gobernuari estatuaren gastuak sustatzeko dirua ordaindu gabe jarraitu eta euskal lurraldeek estatuari armadarako soldaduak emateko betebeharra eduki behar zutelako, Espainiako estatuko beste lurraldeetan bezala. Gainera, euskal lurraldeen mugetan muga-zergak egotearen aurka zegoen eta muga-zerga horiek Ebro ibaitik Bidasoara eta kostetara eramane behar zirela pentsatzen zuen, Espainiar estatu osoa aduana batzuen barruan geratuz²⁶.

Lasalaren ustez, euskal lurraldeek beren muga-zergak edukitzeak Donostiaren eta Euskal Herriaren ekonomia kaltetzen zuen eta muga-zergak desagertzeak Euskal Herriari ondorio ekonomiko positiboak ekarri zizkion.

Horretaz gain, Fermin Lasalaren iritiz, euskal foruak Espainiako Konstituzioaren menpe geratu behar ziren eta Espainiako erregimen konstituzionalari egokitu behar ziren. Horren ondorioz, Espainiako estatuko legedia euskal lurraldeen foru legediaren gainetik egon behar zela pentsatzen zuen.

²⁴LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,240-241.or.

²⁵*Ibidem*, I, 166.or.

²⁶*Ibidem*, I, 161.or.

Mandaseko dukea Espainiaren batasunaren alde zegoen, baina, lurralde antolamenduaren ikuspegitik, ez zegoen Espainiar estatuko lurralde guztiak maila berean egotearen alde. Bere ustez, euskal lurraldeen estatus berezi bat mantentzeak ez zen Espainiaren batasunaren aurkakoa eta euskal lurraldeak bere organismo historikoak eta autonomiaren zati handi bat mantentzearen alde zegoen.

7. XIX. MENDEKO TALDE POLITIKOEN IKUSPEGIA

Bere garaiko egoera politikoaren ikuspegiari dagokionez, Fermin Lasalaren ustez, bere garaian euskaldunak karlisten eta liberalen artean banaturik zeuden eta banaketa horren arrazoia erlijioa zen. Horren arabera, karlistentzat garrantzitsuena erlijio katolikoa zen eta liberalak zirentzat lehentasuna erlijioaren aurka egotea zen. Mandaseko dukearen arabera, bere garaiko euskaldunentzat banaketa erlijioso horrek foruen mantuak baino garrantzi handiagoa zuen eta erlijio gatazkak bi alderdiak, karlistak eta liberalak, elkarren arteko borroka jarrai batera eramaten zituen²⁷.

XIX. mendean Euskal Herriko biztanlearen gehiengoa karlista zen. Hori zela eta, Fermin Lasalak liberal euskaldunek liberal espainiarren eta Espainiako Gobernuaren babesa behar zutela esaten zuen. Horren arabera, euskal lurraldeen autonomia absolutuaren aurka zegoen, horrelako egoeraren bat emango balitz, bere ustez, Euskal Herria absolutisten menpe geratuko zelako eta horrek errepresioa ekarriko zuelako²⁸. Mandaseko dukeak karlistak fanatiko erlijiosoak kontsideratzen zituen. Horren arabera, karlistentzat lehentasuna fanatismo horren arabera jardutea zen eta euskal foruak arrazoi erlijiosoengatik arriskatzeko edo galtzeko prest zeuden²⁹.

Euskal nazionalismoari dagokionez, Fermin Lasalak bere azken liburuan ideologia honi buruz hainbat aipamen egiten ditu, euskal nazionalismoari *bizkaitarrismoa* deitzen dio. Lasala euskal nazionalismoaren aurka agertzen da Espainiaren batasunaren eta berak nazio Espainiarraz zuen ideiaaren aurkakoa delako eta euskal nazionalismoaren helburuak lortzea ezinezkoa dela esaten du³⁰.

Espainiako aldi liberalei dagokionez, Mandaseko dukeak uste zuen errestaurazioa eta gero sortu zen Sagastak zuzentzen zuen Alberdi Liberala foruen aurkakoa eta uniformetasunaren defendatzailea handiena zela³¹. Horretaz gain, Isabel II.aren

²⁷ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 291-193.or.

²⁸ *Ibidem*, II, 301.or.

²⁹ *Ibidem*, I, 356,399.or.

³⁰ *Ibidem*, I, 22.or.

³¹ *Ibidem*, II, 263-264.or.

garaiko Alderdi Progresista foruen aurkakoa eta lurraldeen uniformetasunaren aldekoa zela esaten zuen eta moderatuak berriz, euskal foruak mantentzearen aldekoak³².

8. EUSKAL FORUAK ETA XIX. MENDE HASIERAKO KONSTITUZIOAK FERMIN LASALAREN ANALISIAREN ARABERA

8.1. EUSKAL FORUEN JATORRIA

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruek beren jatorria Erdi Aroan dute. Garai hartan, euskal lurraldeez gain, Penintsula Iberikoko eta Europako beste lurraldeetan ere foruak existitzen ziren eta foru horiek udal mailakoak, probintzia mailakoak edo erresuma baten mailakoak izan zitezkeen³³.

Fermin Lasalaren arabera, Gipuzkoako foruak 1200ean sortu ziren adostasun baten ondorioz. Urte horretan, lurraldea boluntarioki Gaztelako Koroaren zati bihurtu zen eta, horren truke, Gaztelako Alfonso VIII.a Erregeak lurraldeari foruak eman zizkion³⁴. Mandaseko dukearen arabera, Arabako foruak ere 1332an antzekoko egoera batean sortu ziren, urte horretan, Araba boluntarioki Gaztelako Koroaren zati bihurtu zen eta Gaztelako Erregeak lurraldeari bere foruak eman zizkion³⁵. Bizkaiaren kasuan berriz, lurralde hau Gaztelako Koroan, arrazoi dinastiakoen ondorioz, Gaztelako Erregea Bizkaiko Jauna bilakatu zenean integratu zen, horren ondorioz, Bizkaia eta Gaztela batasun pertsonal baten barnean geratu ziren³⁶.

Erdi Aroan, foruak lurralde bakoitzeko ohituretan oinarrituta zeuden eta lurralde askotako legedia foruetan oinarrituta zegoen. Penintsulako erresuma bakoitzean legedi komun bat egon beharrean, lurralde bakoitzak bere araudi juridikoa zuen eta erregeek lurralde bakoitzeko legedia errespetatzen zuten. Horretaz gain, euskal lurraldeek bezala, lurralde askok zergak ez ordaintzeko salbuespenak bezalako pribilegioak zituzten³⁷. Egoera hau XVI eta XVII. mendeetan Monarkia Espainiarrean mantendu zen.

XVIII. mendearen hasieran Espainian zentralizazioa hasi zen, Europako beste estatu askotan bezala. Fermin Lasalaren iritzia arabera, Espainiako Ondorengotza Gerran, euskal lurraldeak izan ezik, gerraren aurretik foruak zituzten lurraldeek Felipe V. aren aurka borrokatu zuten. Gatazka amaitzean, errege berriak bere aurkakoak izan ziren

³²LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 337-338.or.

³³*Ibidem*, I, 35.or.

³⁴*Ibidem*, I, 38.or.

³⁵ *Ibidem*, I, 54.or.

³⁶*Ibidem*, I, 498-499.or.

³⁷*Ibidem*, I, 57.or.

lurraldeen foruak bertan behera utzi zituen, baina euskal lurraldeen foruak errespetatu egin zituen. Horren ondorioz, euskal lurraldeak eta Nafarroa Espainian foruak mantentzen zituzten lurralde bakarrak bezala geratu ziren³⁸.

8.2. IRAULTZA FRANTSESAREN ONDORIOAK ETA OKUPAZIO FRANTSESA

1789ko Iraultza Frantsesaren ondorioak euskal foruen kontserbazioa mehatxatu zuten. Antzinako erregimenean, Frantziako hainbat lurraldeek beren foruak eduki zituzten. Baina, iraultza eta gero, Frantzian estatu osoarentzako Konstituzio eta legedi bakar bat ezarri zen. Gainera, lurralde guztien autonomia bertan behera geratu zen eta lurralde guztien uniformetasuna oinarritutako estatu zentralista ezarri zen.

Horren ondoren, iraultzaren eta ideia liberalen alde zeudenak estatu forma horren aldekoak eta foru erregimena mantentzearen aurkakoak bihurtu ziren³⁹. Horren ondorioz, euskal lurraldeetako foru erregimenaren isolamendua handitu zen, beste lurraldetako araudiarekin konparatuta gero eta berezitasun handiagoak izaten hasi zelako. 1876an euskal lurraldeak foruak kontserbatzen zituzten bakarrak ziren⁴⁰.

1793 eta 1795 urteen artean Espainia eta Frantzia Iraultzailearen arteko Konbentzioaren gerra gertatu zen. Lasalak egitate hau aurretik aipatutako liburu batean aztertu zuen⁴¹. Gerra hartan, Gipuzkoako Foru Aldundia Frantziarekin aliatu zen Gipuzkoaren independentzia lortzeko, baina, 1795ean gerra bukatu zenean, independentzia lortzeko saiakera hori bertan behar geratu zen⁴². Horren ondoren, Espainiako Gobernuak pentsatu zuen independentzia saiakera hori foruen existentziaren ondorioz posible izan zela eta Godoyren gobernuak euskal foruen aurkako politikari ekin zion⁴³.

1804an Bilbon matxinada bat egon eta gero, Bizkaiko foruak murriztu ziren. Foruek onartzen zuten Bizkaiko Korrejidorearen kargua bertan behera geratu zen eta Probintziako Komandante Jeneralak ordezkatu zuen. Komandante Jeneralaren baimenik gabe Batzarrak edo Diputazioak ezingo zirela osatu ezarri zen. Hori eta gero, Godoyren agintaldiaren garai osoan, euskal foruen aurkako politikak jarraitu zuen eta

³⁸LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 67-69.or “en la lucha de las casas de Borbón y de Austria: mientras los demás países forales optaron por esta y perdieron sus Fueros, las Provincias Vascongadas optaron por aquella y salvaron los suyos”.

³⁹*Ibidem*, I, 72.or.

⁴⁰*Ibidem*, I, 36.or.

⁴¹ LASALA Y COLLADO, Fermín de, *La separación de Guipúzcoa y la Paz de Basilea*, Madrid: Academia de Ciencias Políticas y Morales, 1895.

⁴²LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 76-77.or.

⁴³*Ibidem*, I, 78.or.

foruak murriztuak izatearen edo bertan behar behera geratzearen mehatxupean egon ziren⁴⁴.

1808an Jose Bonaparte Espainiako Erregea bilakatu zen eta euskal lurraldeak armada frantsesaren okupaziopean geratu ziren. Espainiako erregimen Napoleonikoaren arau gorena zen Baionako Konstituzioko 144. artikulua Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako foruak aipatzen zituen. Artikulu horren arabera, lehenengo Espainiako Gortek lurralde horietako foruei buruz erabakiko zuten.

Hasieran, erregimen berriak euskal foruak mantendu zituen. Hala ere, legedi berriaren ondorioz, euskal foruen egoeran aldaketa bat egon zen. Lehen aldiz, euskal lurraldeetako foruak Espainiako arau orokor baten menpe geratu ziren. Horretaz gain, Espainiako erakunde batek euskal lurraldeetako foruak euskal lurraldeen nahiaren kontra aldatu zitzakeela ezarri zuen⁴⁵.

1810ean euskal lurraldeen egoera aldatu zen. 1810eko otsailaren 8ko Dekretuak Ebro ibaia eta Pirineoen arteko lurraldea Espainiako Monarkiatik banandu zuen, lurralde horiek lau eremutan banatuta geratu ziren eta eremu bakoitza gobernadore baten menpe geratu zen. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba Bizkaiko Gobernuaren menpean geratu ziren eta Thouvenot jenerala gobernadore bihurtu zen⁴⁶.

1810eko otsailaren 20ko Dekretuan Bizkaiko gobernadoreak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeetako diputatuak Gobernu Kontseilu bakar bat osatuko zutela ezarri zuen⁴⁷. 1810eko martxoaren 1ean Thouvenot jeneralak beste Dekretu bat eman zuen. Dekretu horren lehen artikulua Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Batzar Nagusiak eta Diputazioa bertan behera geratzen zirela ezarri zuen, bigarren artikulua, lurralde bakoitzean Probintziako Kontseilu bat egongo zela ezarri zuen eta hirugarren artikuluan jeneralak lurralde bakoitzeko kontseiluko kideak izendatu zituen. Horren ondorioz, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako erregimen historikoak bertan behera geratu ziren⁴⁸.

8.3. CADIZEKO KONSTITUZIOA ETA FORUAK

Napoleonen armadak Euskal lurraldeak okupatuak zituen bitartean, 1812an Cadizen bilduta zeuden Gortek Cadizeko Konstituzioa aldarrikatu zuten. Urte horretan, Napoleonen aurka borrokatzen zuen armada aliatuak lehen aldiz Bizkaia okupatu

⁴⁴LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 81-82.or.

⁴⁵*Ibidem*, I, 91-92.or.

⁴⁶*Ibidem*, I, 97.or.

⁴⁷*Ibidem*, I, 98.or.

⁴⁸*Ibidem*, I, 101-102.or.

zuen. Horren ondoren, Mendizabal jeneralak Bizkaiko Batzar Nagusiak bildu zituen, lurralde honetan 1812ko Espainiako Konstituzioa ezartzeko⁴⁹.

Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Konstituzioaren eta Cadizeko Konstituzioaren arteko bateragarritasunari buruz zalantzak eduki zituzten. Hori dela eta, Batzar Nagusiek Espainiako Erregentziari galdetu zioten ea Konstituzioak Bizkaiko foruak guztiz edo partzialki indarrean uzten zituen edo foruak bertan behera geratzen ziren. Erregentziak ez zion kontsulta horri erantzun⁵⁰.

Cadizeko Konstituzioak euskal foruak ez zituen aipatzen eta ez zituen espresuki bertan behera uzten. Horren ondorioz, Cadizeko Konstituzioaren barruan foruak edukiko zuten egoerari buruzko zalantzak sortu ziren.

1812ko Konstituzioan estatuaren lurralde antolamendua araututa zegoen. Bertan, lurralde antolamendu bakar bat agertzen zen, horren arabera, garai hartako Espainiaren Inperioa osatzen zuen lurralde bakoitzak Batzar eta Diputazio Probintzial bat edukiko zuen eta probintzia bakoitzak Erregeak izendatutako Buruzagi Poltiko batengatik zuzendurik egongo zela ezartzen zuen. Horretaz gain, Espainiako Inperio osoan botere legegile bakarra eta Gorte bakar batzuk egongo zirela esaten zuen⁵¹.

Cadizeko Konstituzioa eta foruen arteko bateragarritasuna eztabaidagarria da. Bartolomé Clavero irakasleak *Notitia Vasconiae*ko aldizkariko atal batean gai hori aztertu zuen. Cadizeko Konstituzioa onartu zuten Gorteen nahia garai hartako Inperio Espainiarra estatu zentralista eta uniforme bat bilakatzea zen eta estatuko lurralde guztiak mailakatu nahi zituzten, nahiz eta, garai hartako Espainiar estatua hainbat kontinenteetatik zabaldu. Gorteen 1812ko Konstituzioan lurralde eredu hori ezartzeko asmoa zuten eta, horren ondorioz, Konstituzio berriak euskal lurraldeetako foruak bertan behera uzten zituela kontsideratzen zuten⁵².

Hala ere, Bartolomé Clavero Salvadorrek *Notitia Vasconiae*en idazten duenaren arabera, Cadizen onartutako Konstituzioak ez zituen nahitaez euskal foruak bertan behera uzten. Konstituzioan Espainiako Monarkia osatuko zuten lurraldeak aipatzen ziren eta, horien artean, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba aipatzen ziren, *Provincias Vascongadas* bezala aipatuta. Autorearen arabera, garai hartan probintzia hitzak hainbat esanahi desberdin eduki zitzakeen eta esanahi horietako bat probintzia bezala

⁴⁹LASALA, Última etapa de Unidad Nacional, I, 108.or.

⁵⁰*Ibidem*, I, 109-111.or.

⁵¹ CLAVERO SALVADOR, Bartolomé, "Constitución en común entre Cultura y Escritura: Encrucijada Gaditana de los Fueros Vascos", *Notitia Vasconiae*, 2003, 613-662, 618.or.

⁵² *Ibidem*, 619-620.or.

aipatzen ziren lurraldeak subjektu politikoak bezala definitzea zen. Horren ondorioz, Konstituzioak hiru lurraldeak probintzia bezala definitzean, inplizituki beren foruak errekonozitzen zituela interpretatu zitekeen⁵³.

Bartolome Claverok dioenez, Cadizeko Konstituzioa zentzu bat baino gehiagotan interpretatu daiteke⁵⁴. Konstituzioak Espainian estatu zentralizatu eta uniforme bat bilakatzen duela interpretatu zitekeen, baina, Konstituzioaren bidez estatu federal bat ezarri zitekeenaren zentzuan ere interpretatu zitekeen. Horren arabera, interpretazio hori Konstituzioak probintziei ematen zien erakundeetan oinarrituta egin zitekeen. 1812ko Konstituzioak probintzia bakoitzari Batzorde eta Diputazio bat ematen zien, parlamentu eta gobernu baten antzeko erakundeak, horren ondorioz, lurralde bakoitzeko ordezkariak lurralde bakoitzeko arau propioak onartzeko gaitasuna zutela interpretatu zitekeen⁵⁵.

Gainera, Cadizeko Konstituzioa Inperio handi bateko arau gorena izateko helburuarekin egin zela ere kontuan hartu behar zen. Garai hartan, Espainiaren inperioa oso handia zen, bere barnean egoera oso desberdinak zituzten lurraldeak zeuden eta, horren ondorioz, ezin zen nazio uniforme bateko Konstituzioa bezala kontsideratu. Horren arabera, Inperio baten arau goren bezala, Cadizeko Konstituzioak Inperioaren barruan existitzen ziren errealitate pluralak barneratu zitzaizkela pentsatu zitekeen⁵⁶.

Horretaz gain, garai hartan, orokorrean arau bat bertan behera geratzeko arau hori espresuki deuseztatu behar zela kontsideratzen zen. Cadizeko Konstituzioak euskal foruak ez zituen espresuki bertan behera uzten eta, horren arabera, Konstituzioak foruei ez ziela eragiten kontsideratu zitekeen.

Gainera, euskal foruak euskal lurraldeen zuzenbide propioa zuen. Bartolome Claveroren arabera, antzinako erregimenean, arau orokorra estatu zentralak lurralde desberdinetako foru zuzenbidea ezin zuela aldatu zen, zuzenbide horretaz ezin zuela xedatu kontsideratzen zelako. Horren arabera, euskal lurraldeetan foru zuzenbidea

⁵³CLAVERO, "Constitución en común entre Cultura y Escritura: Encrucijada Gaditana de los Fueros Vascos", 627.or.

⁵⁴ CLAVERO SALVADOR, Bartolomé, "Entre Cádiz y Bergara: lugar de encuentro de la Constitución con los Fueros", *Anuario de Historia del Derecho Español*, 1989, 205-282. Honela dio 253. orrialdean: "El constitucionalismo de Cádiz compatible con un federalismo foral y sobre valores nuevos constitucionales. No había garantías de que uno fuera a funcionar mejor que el otro".

⁵⁵CLAVERO, "Constitución en común entre Cultura y Escritura: Encrucijada Gaditana de los Fueros Vascos", 633.or.

⁵⁶*Ibidem*, 654-655.or.

existitzean, Cadizeko Konstituzioak euskal foruak bertan behera uzteko gaitasunik ez zuela ere kontsideratu zitekeen⁵⁷.

Hala ere, Fernando VII.a Espainiara itzuli arte Espainia gobernatzen zuen Erregentziaren asmoa estatu osoaren uniformetasuna ezartzea zen eta bere jarrera euskal foruak mantentzearen aurkakoa zen. 1813ko urtarrilaren 1etik 1813ko ekaina arte armada frantsesak berriro Bizkaia okupatu zuen. Horren ondoren, Bizkaiko foruak bertan behera geratu ziren. Bizkaiko organo historikoak ez ziren berrezarri eta Espainiako Erregentziak Diputazio Probintzial bat ezarri zuen, Bizkaia estatuko beste lurraldeen maila berdinean jarriz⁵⁸.

Gipuzkoako egoerari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko foruak errespetatzea eskatu zuen eta Gipuzkoan estatuko araudi orokorra lurraldearen berezitasunei egokitzea. Erregentziak berriz, Gipuzkoako foruak deuseztatzerara eta Gipuzkoa estatuko beste lurraldeen egoerara uztera bideratutako politika egin zuen.

Antzinako Erregimenean euskal lurraldeetan Espainiako Erregea ordezkatu zezakeen ordezkari bakarra Korrejidorea zen. Erregentziak kargu hau bertan behera utzi zuen eta Gipuzkoarako Buruzagi Politiko bat izendatu zuen, Espainiako legediak araututako kargu bat. Horretaz gain, udalak Konstituzioaren arabera antolatu behar zirela agindu zuen eta foruek arautzen zuten lurraldeko sistema judiziala bertan behera geratu zen, Espainiako sistema judizial orokorra ezarriz⁵⁹.

Foruen aurkako politikarekin jarraituz, Erregentziak Gipuzkoari diru kopuru zehatz bat ematea exijitu zion, estatuko beste lurraldeek bezala Gipuzkoak Espainiako Gobernuari diru kopuru bat eman behar ziola esanez⁶⁰.

8.4. FERNANDO VII. AREN ERREGEALDIA ETA ABSOLUTISMOA

Egoera hau 1814an Fernando VII.a Espainiara itzultzean aldatu egin zen. Erregeak 1814ko maiatzaren 4an Valentiako Dekretua eman zuen, Dekretu horren bidez Cadizeko Konstituzioa eta, bera Espainiatik kanpo egon zen bitartean, Gorteek eman zituzten Dekretu guztiak bertan behera utzi zituen⁶¹. Horren ondoren, 1814ko

⁵⁷ CLAVERO, "Constitución en común entre Cultura y Escritura: Encrucijada Gaditana de los Fueros Vascos", 650.or.

⁵⁸ LASALA, Última etapa de Unidad Nacional, I, 111.or.

⁵⁹ *Ibidem*, I, 116-118.or.

⁶⁰ *Ibidem*, I, 119.or.

⁶¹ *Ibidem*, I, 129.or.

ekainaren 28an euskal foruak guztiz berretsi zituen⁶². Era honetan euskal foruak berrezarrita geratu ziren.

Foruen egoera 1820an berriz aldatu zen. Urte horretan, Espainian gobernu liberal bat osatu zen eta 1812ko Cadizeko Konstituzioa berrezarri zuen. Hori eta gero, Gobernuak Espainia osoan Diputazio Probintzialak osatzeko agindua eman zuen eta euskal lurraldeetako organo historikoak, berriro ere, deuseztatuta geratu ziren⁶³. 1823an, berriz, absolutismoa berrezarri zen eta, horrekin batera, euskal foruak. Hori eta gero, euskal lurraldeetan, foru erakundeek Espainiako estatu osoan eman zen liberalen aurkako erreakzioa zuzendu zuten, aurreko erregimen liberalaren aldekoak izan zirenen aurkako neurriak hartuz⁶⁴.

1833an Fernando VII.a hil zen eta lehen gerra karlista hasi zen. Gerra hartan, karlistek Euskal Herriaren zati handiena okupatu zuten. 1834an, Espainian liberal moderatuak gobernuan zeudenean, Errege Estatutua Espainiako arau gorena bihurtu zen. Isabel II.aren aldekoa zen Gipuzkoako Foru Aldundiak estatutua onartu zuen, lurraldeko foruei kalte egiten zien alderdietan izan ezik⁶⁵.

1837an, altxamendu liberal progresista baten ondoren, 1837ko Konstituzioak Errege Estatua Espainiako arau goren bezala ordezkatu zuen. Horren ondoren, euskal lurraldeetako foru organoak deuseztatuta geratu ziren eta Diputazio Probintzialengatik ordezkatu ziren⁶⁶.

8.5. 1839KO URRIAREN 25EKO LEGEA

1839ko abuztuaren 31an armada liberalak eta karlistak bakea sinatu zuten eta Euskal Herrian lehenengo gerra karlista amaitu zen. Bergaran sinatutako bakean, Espartero jeneral liberalak Espainiako Gobernuaren aurrean euskal foruak mantentzea edo aldaketa defendatuko zuela hitzartu zen.

Horren ondoren, foruen inguruan Espainiako Gorteek 1839ko urriaren 25eko Legea eman zuen. Legea ezarri zen garaian Espainiako Gorteetako diputatuen gehiengoa liberal moderatua zen eta indar politiko hau euskal foruak mantentzearen alde zegoen.

Gorteetan legearen inguruko debatea luzea izan zen. Bertan, euskal foruak garai hartako erregimen liberalari egokitzeko beharrezkoak ziren neurrian erreformatu eta

⁶²LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 131.or.

⁶³*Ibidem*, I, 135.or.

⁶⁴*Ibidem*, I, 148.or.

⁶⁵*Ibidem*, I, 179.or.

⁶⁶*Ibidem*, I, 200.or.

murriztearen ikuspegiak parlamentuaren onarpena jaso zuten. Hala ere, debatean tesi horiek defendatu zituztenak euskal lurraldeak eta Nafarroa pixkanaka Espainiako erregimen komunean integratzearen eta estatuko beste lurraldeen egoera berdinean uztearen alde agertu ziren⁶⁷.

Legeak bi artikuluko zituen:

Art. 1º. Se confirman los Fueros de las provincias Vascongadas y de Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía.

Art. 2º. El Gobierno tan pronto como la oportunidad lo permita, y oyendo antes a las provincias Vascongadas y a Navarra, propondrá a las Cortes la modificación indispensable que en los mencionados Fueros reclama el interés de las mismas, conciliándolo con el general de la Nación y de la Constitución de la Monarquía, resolviendo entre tanto provisionalmente, y en la forma y sentido expresados, las dudas y dificultades que puedan ofrecerse, dando de ella cuenta a las Cortes.

Horren arabera, euskal foruak mantentzen ziren, baina beraien egoera aldatu egiten zen, foruek gerra karlistaren aurretik zuten egoerarekin konparatuta. Gerra aurretik, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan lurralde bakoitzeko foruak lurralde horretako arau gorena ziren eta ez zeuden Espainiako Konstituzio edo arau goren idatzi baten menpean.

Lege horren ondorioz, euskal lurraldeetako foruak Espainiako Konstituzioaren menpean geratu ziren eta Euskal Herria Espainiako Batasun Konstituzionalaren barnean geratu zen. Horretaz gain, foruak aldatuko zirela ere ezartzen zuen. Legeak Espainiako Gorteek, Espainiako estatu zentralaren erakunde batek, euskal foruak aldatu eta murrizteko eskumena zuela ezartzen zuen eta, euskal foruen elementu batzuk Espainiako Konstituzioari egokitzen ez baziren edo Espainiaren interes orokorraren aukakoa baziren, Espainiako Gobernuak Gorteei foruen aldaketa proposatu ahal izango ziela esaten zuen⁶⁸.

Fermin Lasalaren arabera, lege honen ondorioz, euskal lurraldeak Espainiako subiranotasun bakarraren menpe geratu ziren eta euskal foruak Espainiako botere legegilearen menpe⁶⁹. 1839ko urriaren 25eko Legearen ondoren, foruak Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako lurraldeen arau gorena izateari utzi zioten eta, gainera, Espainiako estatuak euskal foruak unilateralki eta euskal lurraldeen nahiaren aurka aldatu zitzakeela ezarri zen.

⁶⁷ ARRIETA ALBERDI, Jon, "170 años de la Ley de 25 de octubre de 1839", *Hermes*, 2009, 28-36, 32-33.or.

⁶⁸ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 116.or.

⁶⁹ *Ibidem*, II, 116,121-122.or.

Horren ondoren, euskal lurraldeek kontserbatu zuten eta etorkizunean edukiko zuten autonomia maila Espainiako estatuko Gobernuaren eta Gorteen nahiaren menpe geratu ziren, erakunde hauek euskal lurraldeen foruak, beren nahiaren arabera, murrizteko gaitasuna lortu zutelako.

Euskal lurraldeetako erakundeek 1839ko urriaren 25eko Legea onartu zuten⁷⁰. Hori eta gero, Espainiako Gobernuak 1839ko azaroaren 17ko Dekretua eman zuen. Dekretu horrek euskal lurraldeetako sistema forala berrezarri zuen. Foru Aldundiak berrezarri ziren eta udaletxeak eta justizia sistema berriz foruen arabera antolatu ziren. Hala ere, legearen aurretik ezarri ziren Diputazio Probintzialei dagokienez, organo hauek ez ziren desagertu baina beren eskumenak oso murriztuta geratu ziren.

Horretaz gain, foruek esaten zutenaren arabera, hauteskundeetan botatu ahal izateko eta hauteskundeetan aukeratua izateko hidalgoa izan behar zela ere ezarri zen⁷¹. Hala ere, Gipuzkoari dagokionez, foruek ezartzen zutenaren arabera, Gipuzkoako jatorria zuten biztanle guztiak nobleak ziren⁷².

8.6. FORUAK ESPARTERO JENERALAREN AGINTALDIAN

1840an, altxamendu militar baten ondoren, Maria Kristina Erregenteak bere kargua utzi behar izan zuen eta Espartero jenerala, liberal progresisten burua, Erregentea bilakatu zen. Gobernu berriak euskal foruak murriztera bideratuko politika bati ekin zion. 1841eko urtarrilaren 6an pase forala bertan behera geratu zen⁷³. Horretaz gain, Espainiako Gobernuak euskal foruak murrizteko prozesu bat hasiko zuela adierazi zuen⁷⁴.

1841ean Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundiek Esparteroaren aurkako altxamendu batean parte hartu zuten. Altxamenduak ez zituen bere helburuak lortu eta, horren ondoren, Erregenteak lurralde hauetako foruak berehala murriztez erabaki zuen⁷⁵. 1841eko urriaren 29an Espartero Erregenteak euskal lurraldeetako Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruak murrizten zituen dekretu bat eman zuen. Dekretua 1839ko urriaren 25eko Legean oinarrituta ezarri zen⁷⁶.

Esparterok emandako dekretuaren arabera:

⁷⁰ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 215-216.or.

⁷¹ *Ibidem*, I, 232-233.or.

⁷² *Ibidem*, I, 245.or.

⁷³ *Ibidem*, I, 262.or.

⁷⁴ *Ibidem*, I, 266.or.

⁷⁵ *Ibidem*, I, 277.or.

⁷⁶ *Ibidem*, I, 296-298.or.

-Gipuzkoa eta Bizkaiko Korrejidoreak Buruzagi Politikoak bihurtu ziren. Babes eta segurtasun eskumenak kargu hauen esku utzi ziren.

-Udaletxeak Espainiako legeen arabera antolatuko zirela ezarri zen.

-Foru Aldundiak Diputazio eta Batzar Nagusiak desagertu ziren eta Diputazio Probintzialak ezarri ziren.

-Diputazio Probintzialek Foru Aldundiek eta Batzar Nagusiek zeuzkaten funtzioak beteko zituztela ezarri zen.

-Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako antolakuntza judiziala beste probintzien antolakuntzaren arabera mailakatu zen.

-Espainiako legeak euskal lurraldeetan mugarik gabe aplikatuko zirela ezarri zen.

-Muga-zergak kostan eta Espainiako estatuaren mugetan finkatuko zirela ezarri zen. Horren ondorioz, euskal lurraldeek beren muga-zergak galdu zituzten.

1842ko apirilaren 23an Espainiako Gorteek Dekretu hori onartu zuten. Garai hartan, Gorteak liberal progresistengatik kontrolaturik zeuden.

8.7. FORUAK ISABEL II.AREN ERREGEALDIAN

1843an Esparteroren aurkako beste altxamendu bat egon zen. Altxamendu horrek, jeneralaren Erregentziarekin amaitu zuen eta, horren ondoren, Isabel II.aren adin nagusitasuna aldarrikatu zen eta Gobernu liberal moderatu bat osatu zen.

Gobernu moderatuak foruen inguruan 1844ko uztailaren 4ko dekretua eman zuen. Dekretu horrek Esparterok emandako dekretua partzialki indargabetu zuen. Dekretuak Diputazioei beren lehengo forma itzuli zien, Diputazio Foralak eta Batzar Orokorrak berrezarri ziren eta udaletxeei foruen arabera antolatzea baimendu zitzaien, udal bakoitzari foruen edo Espainiako legediaren arabera antolatzea erabakitzeke aukera emanaz. Hala ere, aurreko dekretuak ezartzen zuen batasun legislatiboa, zerga-mugen egoera eta Buruzagi Politikoen eskumen maila ez ziren aldatu. Horretaz gain, hidalgia ez zen hauteskundeetan parte hartzeko baldintza bat izatera itzuli⁷⁷.

1841eko Dekretuak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeen foruak murriztu zituen, baina, Fermin Lasalaren arabera, erreforma horrekin ez zen 1839ko urriaren 25eko Legeak ezartzen zuen foruen aldaketa eman. 1839tik Espainiako Gobernu desberdinek hainbat alditan euskal lurraldeen ordezkarietara deitu zieten foruen erreforma bat

⁷⁷ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 308-311.or.

adosteko, baina, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeek foruen murrizketa ekiditea lortu zuten⁷⁸.

Lasalaren arabera, legea ez zen bete, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeek Espainiako Gobernuari diru-ekarpenik eman gabe eta Espainiako armadari soldaduak eman gabe jarraitu baitzuten. Horren ondorioz, hiru lurralde horien kasuan, 1839ko urriaren 25eko Legea ez zen bete hirugarren gerra karlistaren ondoren gertatu zen foruen krisia gertatu arte⁷⁹.

Gari hartan, hiru lurraldeetako erakundeek momentu hartan zeukaten egoera ahalik denbora gehien luzatu nahi zuten. Horren ondorioz, 1839ko urriaren 25eko Legea betetzeko egin behar zen foruen erreforma ahalik eta gehien atzeratzen saiatu ziren eta, horretarako, lurraldeetako erakundeen ordezkariak Espainiako erakundeekin foruen inguruan negoziatzen zutenean adostasun batera iristea ekiditen saiatzen ziren. Jarrera horren ondorioz, Isabel II.aren erregealdian Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak beren erregimen administratibo eta ekonomikoa mantendu zuten⁸⁰.

Nafarroaren kasuan berriz, egoera desberdina izan zen. Lurralde horrek, 1841ean Espainiako Gobernuarekin bere foruen erreforma bat adostu zuen. Horren ondorioz, lurraldeko organo politikoak bertan behera geratu ziren, zerbitzu militarra ezarri zen eta Nafarroak estatuari diru-ekarpen bat emango ziola adostu zen. Paktu horren bidez, Nafarroa Espainiako batasun konstituzionalaren barnean geratu zen⁸¹.

Hala ere, Nafarroak estatuari eman beharko zion diru-ekarpena estatuko beste lurraldeekiko baldintza desberdinetan emango ziola ezarri zen. Nafarroak estatuari emango zion diru-ekarpena urtean behin eman beharko ziola ezarri zen eta ekarpen horretan eman beharko zen diru-kopurua zehatza eta aldaezina izango zela⁸².

Fermin Lasalaren arabera, Isabel II.aren erregealdiaren garaian egon ziren Espainiako Gobernu desberdinek ez zieten Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari diru- edo soldadu-ekarpenak emateko eskatzen. Mandaseko dukearen arabera, jokaeraren arrazoia ekarpenak eskatzeko forma zen, foru erregimenean Espainiako Gobernuak euskal lurraldeei dirua eta armadarentzako soldaduak eskatzeko prozedura bat zegoen, baina, Espainiako Gobernu liberalek eskaera hori antzinako erregimeneko prozedura baten arabera egitea desagokoa zela pentsatzen zuten. Gobernuek ez zuten diru- eta

⁷⁸LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 462.or.

⁷⁹*Ibidem*, I, 475.or

⁸⁰ MONREAL ZIA, Gregorio, "La Ley abolitoria de Fueros de 21 de julio de 1876", *Iura vasconiae* 10,2013, 29-192, 47-48.or.

⁸¹ *Ibidem*,107.or.

⁸²*Ibidem*, 143.or.

soldadu-ekarpenak eskatzeko prozedura konstituzionala ere erabiltzen, prozedura horren arabera ekarpenak eskatzea arriskutsua izango zela pentsatzen zuten⁸³.

Mandaseko dukearen arabera, Isabel II.aren erregealdian hiru lurraldeek beren foruak galtzeko zituzten aukerak, denbora igaro ahala, gero eta handiagoak bihurtzen ziren⁸⁴. Lasalaren arabera, garai hartan Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak zuten egoera mantentzea ezinezkoa zen munduan estatuari ekarpenak ematen ez zizkieten lurralde bakarrak zirelako. Horretaz gain, politikari donostiarraren arabera, Espainia gerran zegoen garaian hiru lurraldeek beren foruen ondorioz zuten egoera mantentzea oraindik zailagoa bihurtzen zen⁸⁵.

1859an Espainia eta Marokoren arteko gerra bat egon zen. Fermin Lasalak dioenez, momentu horretan, euskal lurraldeek beren foruak galtzeko arriskuan egon ziren. Politikari donostiarraren arabera, gerra hastean Espainian zehar sentimendu nazionalista espainiarra zabaldu zen eta, bere ustez, egoera horretan foruak arriskuan egotea ekiditeko hiru lurraldeek Espainiako Gobernuari dirua eta soldaduak eman behar zizkieten.

Gerra deklaratzean, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak Gobernuari ez zioten ekarpenik eman, baina, gerra hasi ondoren, lurraldeek estatuari diru- eta soldadu-ekarpenak eman zizkieten. Hala ere, Lasalaren arabera, ekarpen horiek beranduegi eman ziren eta, horren ondorioz, hiru lurraldeetako foruak desagertzeko aukera handiak egongo ziren⁸⁶.

Isabel II.aren erregealdian Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria izan zen Julian Egañak hiru lurraldeetako sistema forala 1839ko urriaren 25eko Legea egokitzeko modu bat proposatu zuen. Bere ustez, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak Espainiako Gobernuarekin lurralde bakoitzak Gobernuari urtero diru-ekarpen bat ematea adostu beharko zuten, Nafarroa eta estatuaren arteko adostasunaren ondorioz Nafarroak Gobernuari ordaintzen zion diru-ekarpena eredu bezala hartuta. Diru-ekarpen hori lurralde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta ezarri beharko zen⁸⁷.

⁸³ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 351.or.

⁸⁴ *Ibidem*, I, 349-350.or.

⁸⁵ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 352.or.

⁸⁶ *Ibidem*, I, 350-351,353.or.

⁸⁷ EGAÑA, Julian, *“Ensayo sobre la naturaleza y transcendencia de la legislación foral de las provincias Vascongadas” de Julian Egaña*, Instituto de Derecho Historico de Euskal Herria, 1996, 192.or.

Soldadu ekarpenari dagokionez, Julian Egañaren arabera, lurralde bakoitzak bere indar armatuak zituenez, euskal lurraldeek indar armatu horien bidez monarkiaren defentsan parte hartzen zuten eta, horren ondorioz, hiru lurraldeetan la *quintaren* aplikazioa ezartzea ez zen beharrezkoa. Julian Egañaren arabera, hiru lurraldeen foruak Espainian hiru erakundeen aurkako ikuspegiak egotea ekiditeko eta foru sistema bertan behera geratzearen arriskua aldentzeko erreformatu beharko ziren⁸⁸.

9. 1876ko UZTAILAREN 21EKO LEGEA ETA EUSKAL FORUEN DEUSEZTAPENA

Fermin Lasala foruen deuseztapena eragin zuen krisiaren lekuko izan zen eta *Última etapa de la Unidad Nacional* liburuan gertakari horiek azaltzen ditu. Horretaz gain, liburu horretan, krisi horren inguruko bere iritziak eta planteamenduak azaltzen ditu, kasu gehienetan Canovasekin bat egiten eta bere ekintzak justifikatzen, eta momentu hartan euskal politikarien eta erakundeen ikuspegiak zein ziren ere azaltzen ditu. Hori dela eta, bere idatzian euskal foruen desagertzea eragin zuen gatazkaren arrazoiak, gatazka horretako bi alderdien mantendu zituzten ikuspegiak eta bere bilakaera agertzen dira.

9.1. HIRUGARREN GERRA KARLISTA

1868ko Espainiako iraultzaren ondorioz, Isabel II.a erbestera joan zen eta erregimen berri bat ezarri zen. Fermin Lasalaren arabera, iraultzaren ondoren osatu zen Espainiako Gobernuak eliza katolikoaren aurkako politika eraman zuen aurrera. Bere iritziz, Gobernuaren eta liberalen ekintzek haserrea eragin zuen eta politika antierlijioso hori 1872an hasi zen hirugarren gerra karlistaren arrazoia izan zen⁸⁹.

Gerra hasi eta gero, Serrano jeneralak Amorebietako Hitzarmena sinatu zuen karlistekin, gatazkari amaiera emateko helburuarekin. Adostasun hori, bi armadetako buruzagiez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak ere sinatu zuen. Hitzarmen horretan, euskal foruak berretsiko zirela adostu zen, hala ere, Amorebietan sinatutako bakea hautsi egin zen eta gerrak jarraitu egin zuen⁹⁰.

Fermin Lasalaren arabera, euskal liberalak adostasun honen aurka agertu ziren. Hirugarren gerra karlistaren garaian, euskal liberalek ez zuten karlistekin hitzarmenik

⁸⁸EGAÑA, Julian, *“Ensayo sobre la naturaleza y transcendencia de la legislación foral de las provincias Vascongadas”* de Julian Egaña, 196-197.or.

⁸⁹ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 364-367.or.

⁹⁰*Ibidem*, I, 367-368.or.

sinatu nahi eta nahiago zuten euskal lurraldeek beren foruak galtzea foruak mantenduz adostasun batera iritsi baino lehenago⁹¹.

1874an Seiurteko Demokratikoa amaitu zen eta Errestaurazio Borbonikoa hasi zen. Alfonso XII.a Espainiako errege bihurtu zen eta Canovas del Castillo Espainiako gobernuburua. Mandaseko dukearen arabera, Gobernu berria karlistekin adostasun batera iristen saiatu zen eta euskal lurraldeetako foruak gerraren aurretik zeuden bezala mantentzea eskaini zieten armak uzteagatik.

Fermin Lasalaren arabera, hirugarren gerra karlista amaitu aurretik, karlistei eskaintza hori hainbat aldiz egin zitzaien. 1876. urtearen hasieran, karlistak gerra galtzeko zorian zeudenean ere, gerrarekin bukatzeagatik foruak mantentzea eskaintzen jarraitu zitzaien. Hala ere, karlistek ez zuten onartu foruak berresten zituen hitzarmen bat sinatzea eta gerra inolako akordiorik gabe amaitu zen⁹².

Zuzenbidearen Historiako Narrafoako Unibertsitateko Gregorio Monreal Zia irakaslearen arabera, gerra euskal foruak berretsiko zituen adostasun batekin bukatu ez izanaren erantzuleak mugimendu karlistaren buruzagiak izan ziren⁹³. Hirugarren gerra karlistan, lider karlistak ez ziren euskaldunak, Borboien errege etxeko kideak eta beren lurraldeetan destronatuak izan ziren, Europako errege etxe ezberdinen kideak ziren.

Gerra garaian, karlismoaren helburua Karlos VII.a erregegaia Espainiako Errege bilakatzea eta Espainian Monarkia Absolutista bat ezartzen zen. Euskal foruak ez ziren gerra hasi izanaren edo gerra guztiz galdu arte mantendu izanaren arrazoia izan. Mugimendu karlistaren buruzagientzat euskal foruak mantentzearen gaiak ez zuen garrantzirik eduki. Are gehiago, Karlos VII.a erregegaia euskal foruen aurkakoa zen eta, gerra irabazten bazuen, euskal foruak bertan behera uzteko asmoa izan zuen⁹⁴.

Baina, Espainiako Gobernuak hiru lurraldeetako foruen kontserbazioa karlistek armak uztearekin eta gerra amaitzearekin lotu zuen. Horrekin batera, foruak mantentzearen

⁹¹LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 376-384.or.

⁹²*Ibidem*, I, 387-399.or.

⁹³ MONREAL, "La Ley abolitoria de Fueros de 21 de julio de 1876", 63.or.

⁹⁴ *Ibidem*, 79.or.

"El Pretendiente volvió al país el 16 de julio de 1873 y tardó un año en cumplir la exigencia vizcaína de la jura de los Fueros. Sus consejeros tuvieron que hacer grandes esfuerzos para vencer su resistencia a atenerse a lo prescrito en la Constitución foral. Quería «reservarse íntegro el derecho del rey absoluto para en el caso eventual del triunfo acabar con las leyes vascongadas»".

erabakia euskaldunak ez ziren eta foruen mantentzea kontuan hartzen ez zuten buruzagi karlisten eskuetan utzi zuen⁹⁵.

Hala ere, karlistek armak utzi izan bazituzten, Canovasek ez zituen hiru lurraldeetako foruak erreformatu gabe utziko. Kasu horretan, bere asmoa Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari 1841ean Nafarroako foruek jasan zuten erreformaren antzeko foruen erreforma bat eskaintzea izan zen⁹⁶.

9.2. EUSKAL FORUEN EGOERA GERRA AMAITU ONDOREN

Hirugarren gerra karlista amaitu ondoren, 100.000 soldaduk osatutakoa armada batek euskal lurraldeak okupatu zituen. Horretaz gain, Espainiako Gobernuak, lurraldeak okupatu eta gero, lege martziala eta salbuespen egoera ezarri zituen⁹⁷. Egoera horretan, adierazpen askatasuna bertan behera geratu zen eta Canovasek gobernadoreei foruei buruz hitz egitea debekatzeko agindua eman zien⁹⁸. Horretaz gain, garai hartan Espainian lege goren berri bat onartu zen 1876ko Konstituzioa, Konstituzio hau unitarioa eta zentralista zen⁹⁹.

Fermin Lasalaren arabera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruak egoera zailean geratu ziren, Espainiako iritzi publikoak eta Espainiako Gorteen gehiengoak foruen aurkako jarrera bat zutelako¹⁰⁰. Garai hartan, Espainiako biztanleriak eta Gorteen gehiengoak foruen deuseztapena eskatzen zuten eta euskal lurraldeak estatuko beste lurraldeen maila berdinean jartzea¹⁰¹.

Hala ere, Mandaseko dukearen arabera, Canovasek ez zituen euskal foruak guztiz bertan behera utzi nahi euskal lurraldeetako organo historikoak mantendu nahi zituelako, baina, foruak murriztu nahi zituen¹⁰².

Azken gerra karlistan Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoak karlisten alde altxatu zen eta gerra hitzarmen bat sinatu gabe amaitu zen. Horren ondorioz, gerra bukatu eta gero, Canovasek pentsatzen zuen euskal foruak ezin zirela mantendu gerra aurretik zeuden egoeran berdinean. Bere iritziz, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak estatuari

⁹⁵ MONREAL, "La Ley abolitoria de Fueros de 21 de julio de 1876", 63.or.

⁹⁶ *Ibidem*, 160.or.

⁹⁷ *Ibidem*, 85.or.

⁹⁸ *Ibidem*, 63,85.or.

⁹⁹ LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago, "La disolución de los cuerpos de gobierno de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia, la implantación del servicio militar y nacimiento de los conciertos económicos", *Iura vasconiae* 10,2013,193-217,207.or.

¹⁰⁰ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 437.or.

¹⁰¹ *Ibidem*, I, 456.or.

¹⁰² *Ibidem*, I, 465.or.

diru-ekarpenak eta armadari soldaduak ematen hasi behar zuten. Hala ere, Canovasek planteatzen zuen foruen erreforman, euskal lurraldeei beren organismo historikoak eta autonomia mantentzen uztea pentsatzen zuen eta zergen bilketa lurralde hauen eskumena izatea¹⁰³.

Fermin Lasalak foruen murrizketa altxamendu karlistaren eta azken gerra karlistaren ondorio logikoa zela pentsatzen zuen. Bere ustez, gerra bat amaitzean, normala da gatazkaren garaileak galtzaileari kaltetuko dioten baldintzak ezartzea eta, horren ondorioz, gerra galdu duenak bere independentziaren, aberastasunaren edo lurraldearen murrizketa bat jasatea¹⁰⁴.

Hala ere, Mandaseko dukearen arabera, Espainiako Gobernuak euskal lurraldeei jarri nahi zizkien baldintzak gerraren emaitzaren ondorioz jarri zitzakeen baldintzak baino arinagoak ziren. Canovasek, gerra amaitu eta gero, euskal foruen deuseztapena ezarri ahal izango zuelako¹⁰⁵. Bere iritziz, Gobernuak 1876an euskal lurraldeei jarri nahi zizkien baldintzak gerraren emaitzaren ondorioz aurreikusi zitezkeen gutxieneko baldintzak ziren¹⁰⁶.

Canovasek euskal foruen erreforma 1839ko urriaren 25eko legeak ezartzen zuen prozeduraren arabera egin nahi zuen eta, foruen aldaketa hori, Foru Aldundien ordezkariekin negoziatu nahi zuen¹⁰⁷. 1876ko apirilaren 6an Espainiako Ministroen Kontseiluak euskal lurraldeetako Batzar Nagusiei foruen erreforma egiteko ordezkariak izendatzeko biltzeko agindua eman zien.

Garai hartan, hiru lurraldeetako Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak euskal liberalez osaturik eta zuzendurik zeuden. Horren ondorioz, euskal erakundeek gerra garaian Espainiako Gobernuaren alde egon zen Euskal Herriaren biztanleriaren zatia ordezkatzeko zuten. Espainiako Gorteetan euskal lurraldeak ordezkatzeko zituzten parlamentariak ere liberalak ziren.

Izendapen hau egitea 1839ko urriaren 25eko legeak foruak erreformatzeko ezartzen zuen prozedurarekin bat zetorren. Legearen arabera, Espainiako Gobernuak Espainiako Gorteei foruen erreforma proposatu aurretik, euskal lurraldeen ordezkariari entzun behar zien. Hala ere, 1839ko urriaren 25eko legeak ezartzen zuenaren

¹⁰³ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 467-468.or

¹⁰⁴*Ibidem*, I, 274.or.

¹⁰⁵*Ibidem*, I, 464.or.

¹⁰⁶*Ibidem*, I, 492.or.

¹⁰⁷*Ibidem*, I, 440.or.

arabera, Gobernuak ez zuen Diputazioen ordezkariekin foruen erreforma adosteko obligazioa. Gorteei zegokien erreforma hori onartu ala ez erabakitzea.

1876ko maiatzean Espainiako Gobernuaren eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ordezkarien arteko hainbat bilera egin ziren. Hala ere, negoziazioen hasieratik bi alderdien arteko desadostasunak agerian egon ziren. Canovasek euskal lurraldeen ordezkariari Espainiako batasun konstituzionala Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeetara zabaltzea esan zien eta, horren ondorioz, lurralde horiek estatuari diru eta soldadu-ekarpenak emateko zuten betebeharrak konstituzionala ezarriko zela.

Canovasek batasun konstituzionalaren inguruan egiten zuen interpretazioa 1837ko Konstituzioaren 6. artikuluan oinarriturik zegoen eta, horren arabera, euskal lurraldeak batasun konstituzionalaren barruan egoteak lurralde horiek estatuari bere gastuak ordaintzeko ekarpenak eta armadarako soldaduak emateko betebeharrak zutela esan zuen¹⁰⁸.

Gainera, Espainiako Lehen Ministroak foru lurraldeetako ordezkariari, negoziatzen hasi baino lehenago, esan zien batasun konstituzionalaren printzipioaren aldeko adierazpen bat egin behar zutela. Canovasek printzipio horren aldeko adierazpena egiteari lehentasuna ematen zion eta foru lurraldeetako ordezkariari esan zien batasun konstituzionalaren aldeko adierazpen hori egitea foruen erreformaren inguruan negoziatzen hasteko beharrezko izango zela¹⁰⁹.

Foru lurraldeen ordezkariak Espainiako Gobernuburuak batasun konstituzionalari buruz egiten zuen interpretazioaren aurka agertu ziren. Beraien ustez, euskal lurraldeak 1839ko urriaren 25eko Legearen 1. artikulua ezartzen zuen batasun konstituzionalaren barruan egoteak Espainiako monarkiaren, lurraldearen eta errepresentazio nazionalaren barruan egotea esan nahi zuen. Hiru lurraldeak Espainiako batasun konstituzionalaren barnean egoteak ez zuten estatuari diru- eta soldadu-ekarpenak eman behar zizkietela esan nahi¹¹⁰.

Gainera, ordezkarien ustez, Canovasek 1839ko urriaren 25eko Legearen 1. artikuluari ematen zion interpretazioa ezartzen bazen, euskal lurraldeen foruak automatikoki bertan behera geratuko ziren.

¹⁰⁸ MONREAL, "La Ley abolitoria de Fueros de 21 de julio de 1876", 111-112.or.

¹⁰⁹ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 507.or.

¹¹⁰ MONREAL, "La Ley abolitoria de Fueros de 21 de julio de 1876", 116-117.or.

1876ko maiatzean egin ziren bileretan bi alderdiek beren iritziak mantendu zituzten. Horren ondorioz, negoziazio horietan ez zen hiru lurraldeetako foruen erreformaren eta lurraldeek Espainiako Gobernuari egin behar zizkioten ekarpenei buruzko adostasunik egon¹¹¹.

Fermin Lasalak garai hartan Kongresuan adierazi zuenaren arabera, foruen erreformaren inguruan adostasun bat lortu ez izanaren erantzulea Espainiako Ministroen Kontseiluko Presidentea izan zen. Diputatu donostiarraren arabera, Canovasek hiru foru lurraldeetako ordezkariekin aurrera eramane zituen negoziazioak ez zituen ongi planteatu. Canovasek bileretan euskal lurraldeetako ordezkariari batasun konstituzionalari buruzko beste ikuspegia onartzeko eskatu zien. Lasalaren arabera, eskaera hau ezegokia izan zen hiru lurraldeetako ordezkarien funtzioa foraltasunaren printzipioak defendatzea baitzen. Bere ustez, Espainiako gobernuburuak negoziazioetan gai praktikoak landu behar zituen, gai konkretuak eta negoziagarriak planteatuz¹¹².

Horretaz gain, diputatu donostiarrak garai hartan Espainiako Parlamentuan esan zuenaren arabera, Canovasek ordezkariekin negoziazioak aurrera eramateko moduak euskal lurraldeetako politikariengan eragina izan zuen eta negoziazio horietan mantendu zuen jarrerak euskal lurraldeetan inpresio oso txarra utzi zuen¹¹³.

Hasieran, Foru Aldundien ordezkarien estrategia negoziazioak atzeratzea izan zen. Negoziatioak atzeratuz, euskal foruen erreforma ekidin zitekeela pentsatzen zuten eta hirugarren gerra karlista baino lehenago zeuden bezala mantentzea lortuko zutela¹¹⁴.

Fermin Lasala jokabide honen aurkakoa zen. Hirugarren gerra karlista amaitzean, Espainiako Gobernua oraindik Kubako gerran borrokatzen ari zen eta Gobernua aurrera eramaten ari zen Espainiaren berrantolaketa ez zen oraindik amaitu. Horren ondorioz, bere ustez, momentu hori negoziatzeko eman zitekeen egoera onena zen, Espainiaren egoera ez zegoelako normalizatuta¹¹⁵.

Garai hartan, euskal lurraldeetako Foru Aldundiak foruen murrizketaren aurkakoa izan ziren eta Espainiako Gobernuak foruak ezin zituela aldebakarrez aldatu argudiatzen zuten. XIII. mendean Gipuzkoak eta XIV. mendean Arabak Gaztelako Koroarekin boluntarioki eta modu baldintzatu batean bat egin zutela argudiatzen zuten eta lurralde

¹¹¹MONREAL, "La Ley abolitoria de Fueros de 21 de julio de 1876", 120-121.or.

¹¹²*Ibidem*, 100,121-122.or.

¹¹³*Ibidem*, 100.or.

¹¹⁴ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 496.or.

¹¹⁵ *Ibidem*, I, 505.or.

horietako foruak adostasun horien oinarri zirela. Bizkaiaren kasuan, Bizkaia eta Espainiaren arteko harremana batasun pertsonal batena zela argudiatzen zuten, XIV. mendean Gaztelako Erregea, ondorengotza dinastiko baten ondorioz, Bizkaiko Jauna bilakatu zelako. Horren ondorioz, euskal lurraldeak Gaztelako Koroan barneratu ziren modua kontuan hartuta, foruak estatuaren eta euskal lurraldeen arteko adostasunik gabe ezin zirela aldatu argudiatzen zuten¹¹⁶.

Hori dela eta, Foru Aldundien arabera, hiru lurraldeek Espainiako Gobernuari diru-ekarpenak eman behar edo Espainiako armadari soldaduak eman behar bazizkioten, ekarpen horiek lurralde bakoitzeko foruen arabera egin beharko ziren, Erdi Aroan egiten ziren bezala eta ez Espainiako legedi konstituzionalaren arabera. Horren aurrean, Espainiako Gobernuak ekarpenak egiteko modu hori ezin zuela aldatu esaten zuten¹¹⁷.

Foru Aldundiak estatuari bere gastuak ordaintzeko diru-ekarpenak egiteko eta Espainiako armadari soldadu-ekarpenak egiteko prest zeuden. Hala ere, ekarpen horiek foruek ezartzen zutenaren arabera egitea bakarrik onartzen zuten, onartzen ez zutena ekarpenak Espainiako arauen arabera egitea zen. Hiru lurraldeetako ordezkariak Canovasi jarrera hori zutela adierazi zioten¹¹⁸.

Mandaseko dukea planteamendu horren aurkakoa zen. Bere ustez, garai hartako egoera kontuan hartuta, ezin zen Erdi Aroan sorturiko foruak aldaezinak zirela esan. Garai hartan, egoera hori ezinezko bihurtzen zuten egintza batzuk eman ziren, 1839ko urriaren 25eko Legeak euskal foruak berretsi zituen, baina, foruak mugatu zituen eta lege horrek hainbat interpretazio eduki zitzakeen. Gainera, azken gerra karlistaren amaiera hitzarmenik gabe sinatu zen eta armada espainiarrak armada karlista guztiz garaitu zuen eta euskal lurraldeak okupatu zituen. Garaipen militarra zuzenbidearen iturri unibertsala dela ere esaten zuten¹¹⁹.

Lasalaren arabera, Espainiak euskal foruen osotasuna errespetatzeko, aldi berean, euskal lurraldeek Espainiako Botere Publikoa errespetatu behar zuten. Horren ondorioz, euskal lurraldeek Botere Publiko horren aurkako gerra bat mantentzen bazuten, Botere Publikoak ez zuen foruen osotasuna errespetatuko¹²⁰.

¹¹⁶ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 501.or.

¹¹⁷ *Ibidem*, I, 501-502.or.

¹¹⁸ MONREAL, "La Ley abolitoria de Fueros de 21 de julio de 1876", 121.or.

¹¹⁹ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I, 502-503.or.

¹²⁰ *Ibidem*, II, 104.or.

9.3. ESPAINIAKO BI ALDERDI NAGUSIEK FORUEKIKO ZUTEN JARRERA

Mandaseko dukeak 1876an Canovasek euskal foruekiko zuen jarrera eta Sagastak eta honek zuzentzen zuen Alderdi Konstituzionalak foruekiko zuen jarrera alderatzen ditu. Lasalaren arabera, Sagastak eta bere alderdiak euskal foruak eta euskal lurraldeetako organismo historikoak guztiz bertan behera utzi nahi zituzten. Alderdi politiko honentzat, Canovasek planteatzen zuen foruen murrizketa ez zen nahikoa eta erreformaren aurka agertu ziren.

Alderdi Konstituzionala eta horren ondoren sortu zen Alderdi Liberal-Fusionista ideologikoki Isabel II.aren garaiko Alderdi Liberal Progresistaren ondorengoak ziren eta, lurralde antolamenduaren eta foruen inguruan, beren ikuspegiak liberal progresistek tradizionalki sustatu zituztenen berdinak ziren. Sagastaren alderdiak gai honi buruz zuen ikuspegia 1789ko iraultza eta gero Frantzia ezarri zen lurralde antolamenduan oinarrituta zegoen eta lurralde guztien uniformetasuna defendatzen zuten. Horren ondorioz, euskal lurraldeek autonomia berezi bat edukitzearen aurkakoak ziren¹²¹.

Hala ere, Fermin Lasalaren arabera, Canovasek zuzentzen zuen Alderdi Liberal-Kontserbadoreko kide gehienek ere ez zuten euskal foruen zati bat mantentzearen aldeko jarrera bat. Mandaseko dukearen arabera, Canovas, garai hartan, euskal foruak mantendu behar zirela defendatzen zuen gutxienetako bat zen eta Espainiako Gobernuburuak bere alderdiko eta Gobernuako kideak konbentzitu behar izan zituen foruen deuseztapen baten ordeztan, euskal foruen erreforma baten alde egiteko¹²².

Sagastak zuzentzen zuen Alderdi Konstituzionaleko diputatu batek foruen erreforma proiektu bat aurkeztu zuen. Proiektu horrek, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lege politiko, administratibo eta ekonomikoak estatuko beste probintzien berdinak izango zirela ezartzen zuen¹²³. Alderdi Liberal-Kontserbadorearen diputatu gehienek foruen erreforma horren aurka botatu zuten eta, horren ondorioz, ez zen onartu¹²⁴.

9.4. 1876KO UZTAILAREN 21EKO LEGEA

Espainiako Gobernuak Gorteen aurrean foruak erreformatzeko 1876ko uztailaren 21eko Legea aurkeztu zuen. Gobernuak legea Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako erakundeekin edo beren ordezkariekin adostu gabe egin zuen.

¹²¹ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,9-10.or

¹²²*Ibidem*, II,14.or.

¹²³*Ibidem*, II,18.or.

¹²⁴*Ibidem*, II,20.or.

1876an Fermin Lasala Espainiako Gorteetako diputatua zen eta Donostiako barrutia ordezkatzeko zuen¹²⁵. Lasalaren arabera, Espainiako Gorteetan foruak erreformatzeko legearen inguruko debatea eman zenean, bera eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba ordezkatzeko zituzten beste diputatuek legearen aurka agertu ziren¹²⁶.

Mandaseko dukeak bere hitzaldian euskal lurraldeek estatuko beste lurraldeen estatus berdina edukitzearen aurka agertu zen. Kasu batzuetan, estatuaren batasuna lortzeko modurik onena dibertsitatea errekonozitzea zela esan zuen eta estatuaren simetria artifizialak funtsezko batasuna hautsi zezakeela¹²⁷.

Horretaz gain, hitzaldi horretan garai hartan Poloniak eta Hungariak zuten egoera konparatu zuen eta konparaketa hori berak *Todo o Nadaren* politika deitzen ziona kritikatzeko erabili zuen. XIX. mendean Polonia Inperio Errusiarraren barruan zegoen eta Hungaria Inperio Austriakoaren barruan. Hamarkada batzuk lehenago, bi herrialde horietan altxamenduak egon ziren eta bi kasuetan altxamendu horiek garaituak izan ziren.

Poloniak altxamendua baino lehenago autonomia handia zuen eta *Todo o Nada* politika jarraitzeagatik autonomia hori galdu egin zuen. Baina, Hungariaren kasuan berriz, Fermin Lasalaren arabera, herrialde hartako altxamendua garaitua izan ondoren, Deak izeneko politikari batek politika hori alde batera utzi zuen eta negoziaketa erabiliz Hungaria Inperio handi baten indar nagusia bilakatu zuen¹²⁸.

Beste diputatuei dagokienez, Kongresuaren diputatuen gehiengoak foruen erreformaren legearen aldeko botoa eman zuten eta legea onartua izan zen eta Alfonso XII.ak legea sinatu zuen¹²⁹. Euskal lurraldeetatik kanpo aukeratua izan zen diputatu bat bakarrik agertu zen euskal foruak momentu horretan zeuden egoera berdinean mantentzearen alde¹³⁰.

1876ko uztailaren 21eko Legea:

DON ALFONSO XII, Por la gracia de Dios Rey constitucional de España: A todos los que las presentes vieren y entendieren, sabed: que las Cortes han decretado y Nos sancionado lo siguiente:

Artículo 1º. Los deberes que la Constitución política ha impuesto siempre a todos los españoles de acudir al servicio de las armas cuando la ley los llama, y de contribuir en proporción de sus haberes a los gastos del Estado, se extenderán, como los derechos constitucionales se

¹²⁵LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, I,424.or.

¹²⁶*Ibidem*, II,27-28.or.

¹²⁷*Ibidem*, II,33-35.or.

¹²⁸*Ibidem*, II,52-65.or.

¹²⁹*Ibidem*, II,66.or.

¹³⁰*Ibidem*, II,19-27.or.

extienden, a los habitantes de las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Álava del mismo modo que a los de las demás de la Nación.

Artículo 2º. Por virtud de lo dispuesto en el artículo anterior, las tres provincias referidas quedan obligadas desde la publicación de esta ley a presentar, en los casos de quintas o reemplazos ordinarios y extraordinarios del Ejército, el cupo de hombres que les correspondan con arreglo a las leyes.

Artículo 3º. Quedan igualmente obligadas desde la publicación de esta ley las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Álava a pagar, con la proporción que les correspondan y con destino a los gastos públicos, las contribuciones, rentas e impuestos ordinarios y extraordinarios que se consignen en los presupuestos generales del Estado.

Artículo 4º. Se autoriza al Gobierno para que, dando en su día cuenta a las Cortes, y teniendo presentes la ley de 10 de Setiembre de 1837 y la de 16 de Agosto de 1841, y el decreto de 29 de Octubre del mismo año, proceda a acordar, con audiencia de las provincias de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya si lo juzga oportuno, todas las reformas que en su antiguo régimen foral exijan, así el bienestar de los pueblos vascongados como el buen gobierno y la seguridad de la Nación.

Artículo 5º. Se autoriza también al Gobierno, dando en su día cuenta a las Cortes: Primero. Para dejar al arbitrio de las Diputaciones los medios de presentar sus respectivos cupos de hombres en los casos de quintas ordinarias y extraordinarias. Segundo. Para hacer las modificaciones de forma que reclamen las circunstancias locales y la experiencia aconseje, a fin de facilitar el cumplimiento del art. 3.º de esta ley. Tercero. Para incluir entre los casos de exención del servicio militar a los que acrediten que ellos o sus padres han sostenido con las armas en la mano, durante la última guerra civil, los derechos del Rey legítimo y de la Nación, sin que por estas exenciones se disminuya el cupo de cada provincia. Cuarto. Para otorgar dispensas de pago de los nuevos impuestos por los plazos que considere equitativos, con tal que ninguno pase de 10 años, a las poblaciones vascongadas que se hayan hecho dignas de tal beneficio por sus sacrificios de todo género a favor de la causa legítima durante la pasada guerra civil, así como a los particulares que hayan tenido que abandonar sus hogares por la misma causa o sido por ella objeto de persecuciones.

Artículo 6º. El Gobierno queda investido por esta ley de todas las facultades extraordinarias y discrecionales que exija su exacta y cumplida ejecución.

Por tanto: Mandamos a todos los Tribunales, Justicias, Jefes, Gobernadores y demás Autoridades, así civiles como militares y eclesiásticas, de cualquier clase y dignidad, que guarden y hagan guardar, cumplir y ejecutar la presente ley en todas sus partes. Dado en Palacio el veintiuno de Julio de mil ochocientos setenta y seis, YO EL REY. El Presidente del Consejo de Ministros, Antonio Cánovas del Castillo.

Lege honek Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruak murrizten zituen. Legea onartu baino lehenago, estatuko beste probintzietan ez bezala, hiru lurraldeetako biztanleek ez zuten armada espainiarrera joateko obligazioa eta ez zuten Espainiako Gobernuaren gastuak ordaintzeko dirurik ematen.

1876ko uztailaren 21eko Legeak egoera hori aldatu zuen. Horren arabera, legeak ezartzen zenean Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako biztanleak Espainiako armadara joan beharko zuten, beste probintzietako biztanleak bezala, eta hiru lurraldeek estatuaren aurrekontuen legeak ezartzen zituen zerga ohiko eta ez ohikoen zegokien proportzioa ordaintzera behartuta geratzen ziren. Horren ondorioz, hiru lurraldeek estatuari eman beharko zizkioten diru- eta soldadu-ekarpenak Espainiako legedi konstituzionalaren arabera egin beharko zirela ezarri zen, sistema foralaren arabera egin beharrean.

Horretaz gain, legeak Espainiako Gobernuari euskal foruetan aldaketak egiteko gaitasuna ematen zion. Horrek foruak erreformatzeko prozeduran aldaketak eragiten zituen, 1839ko urriaren 25eko Legearen arabera, Espainiako Gorteen foruetan egiten ziren aldaketak onartu behar zituzten, baina, 1876ko uztailaren 21eko Legeak Espainiako Gobernuari foruen edozein aldaketa ezartzeko boterea ematean zion. Horren ondorioz, legeak Canovasi hiru lurraldeetako erakundeak eta autonomia zein mailataraino mantenduko ziren erabakitzeko gaitasuna eman zion eta, horren ondorioz, foruak guztiz deuseztatzeko boterea ere lortu zuen.

Fermin Lasalaren ustez, lege horrek, nahiz eta euskal foruak murrizten zituen, ez zituen hiru lurraldeetako foruak bertan behera uzten¹³¹. Lege hori eman eta ondorengo hilabeteetan, hiru lurraldeetako foru organoek, Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak, ez ziren deuseztatuak izan eta erakunde horiek foruen arabera funtzionatzen jarraitu zuten. Lasalaren arabera, egitate horrek, 1876ko uztailaren 21eko Legea indarrean sartu eta gero, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foru erregimenek existitzen jarraitu zutela frogatzen du¹³².

Horretaz gain, Mandaseko dukearen arabera, euskal lurraldeek estatuari diru-ekarpenak eman behar zizkietela esaten zuen legearen 3. artikulua ez zuen esan nahi legeak eragiten zien hiru lurraldeek diru-ekarpen horiek estatuko beste lurraldeek bezala egin behar zutenik. Bestela, bere iritziz, legearen 5.2. artikulua esandakoak ez zuen zentzurik edukiko, artikulua horrek Espainiako Gobernuak hiru lurraldeek 3. artikulua ezartzen zituen obligazioak betetzeko forman aldaketak egin zitzakeela esaten zuen¹³³.

Politikari Donostiarraren arabera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeek momentu horretan 1876ko uztailaren 21eko Legearen barruan negoziatu behar zuten, ahalik eta etekin handienak lortzeko helburuarekin, eta, egoera horren aurrean, *Todo o Nada* ren politika jarraitzearen aurka zegoen. Bere iritziz, politika hori jarraitzea ez zen eraginkorra¹³⁴.

9.5. 1876KO UZTAILAREN 21EKO LEGEAREN BALIOZKOTASUNA

Baina, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako erakundeek ez zuten Fermin Lasalak defendatzen zuen negoziatzeko politika jarraitu eta Lasalak intrantsigentziaren politika deitzen zuena nagusitu zen. 1876ko irailaren 1ean Gipuzkoako Batzar Nagusiak bildu

¹³¹ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,98-99.or.

¹³² *Ibidem*, II,171.or.

¹³³ *Ibidem*, II,130.or.

¹³⁴ *Ibidem*, II,70.or.

ziren, bilera horren helburua 1876ko uztailaren 21eko Legea onartu ala ez erabakitzea izan zen¹³⁵.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak legearen aurka agertu ziren. Batzar Nagusiek 1876ko uztailaren 21eko Legea estatu foralaren aurkakoa zela eta Gipuzkoako foruak, erakundeak eta askatasunak deuseztatzen zituela ezarri zuten eta legearen deuseztapena eskatu zuten. Horretaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiari Gipuzkoako foruen eta 1839ko urriaren 25eko legearen arabera jarduteko baimena eman zioten lurraldearen interesentzat komenigarriak eta erabilgarriak ziren kudeaketak egiteko. Batzar Nagusiek adostasun hau aho batez onartu zuen¹³⁶.

Horren ondoren, batzarkideak Batzar Nagusietatik kanpo bildu ziren. Bilera horretan, 1876ko uztailaren 21eko Legeari aurre egiteko, legearen aplikazioaren aurrean, erresistentzia pasiboa jartzeko estrategia jarraituko zutela erabaki zuten¹³⁷.

Bizkaiko Batzar Nagusietan ere 1876ko legearen aurkako botoa nagusitu zen. Lurralde horretako Batzar Nagusiek 1876ko urriaren 4an egin zuten bileran Bizkaiko Foru Aldundiak lege horren ezartzepean ez zuela inola ere kooperatu behar adostu zuten. Arabako Batzar Nagusiek ere legearen aplikazioaren aurka egitea onartu zuten¹³⁸.

Hiru lurraldeetako Batzar Nagusiek 1876ko uztailaren 21eko Legearen aurka bozkatu ondoren, Batzar Nagusien ordezkariak Espainiako Gorteen eta Espainiako Koroarengana jo zuten, legea horren aurrean beren jarrera zein zen azaltzeko. Ordezkariak, Batzar Nagusien jarrerarekin bat eginez, 1876ko uztailaren 21eko Legearen aurka agertu ziren.

Legea hori ez zutela errekonozitzen eta bere efektuak ez zituztela onartzen esan zuten. 1876ko legearen ezarpenean ez zutela kooperatuko adierazi zuten eta legea deuseztatu beharko litzatekeela. Horretaz gain, ordezkariak 1839ko urriaren 25eko Legea bakarrik onartzen zutela esan zuten eta, legearen interpretazioari dagokionez, beraiek legeari ematen zioten interpretazioa bakarrik onartzen zutela.

Euskal lurraldeek ez zuten 1876ko uztailaren 21eko Legearen baliozkotasuna onartzen eta bi urtetan zehar Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako erakundeek eta Espainiako

¹³⁵LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,84,90.or.

¹³⁶*Ibidem*,II,91-92.or.

¹³⁷*Ibidem*, II,92.or.

¹³⁸*Ibidem*, II,93.or.

Gobernuak auzi hori buruz eztabaidatu zuten. Hala ere, hiru lurraldeek 1839ko urriaren 25eko Legea errekonozitzen zuten¹³⁹.

1876ko Legeari baliozkotasunik ematen ez ziotenek, ez zuten lege hori onartzen ez zutelako euskal lurraldeen erakundek eta Espainiako Gobernuak adostu. Horren arabera, 1839 urriaren 25eko Legea baliozkoa izango zen euskal lurraldeen eta Espainiako Gobernuaren arteko adostasun baten ondoriozkoa zelako.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako erakundeen aldetik, lehenengo gerra karlistaren ondoren egin zen legea adostutakoa zela esaten zen, lege hori, 1839ko Bergarako Konbenioaren ondorioz egin zelako, 1876ko uztailaren 21eko Legea ez bezala¹⁴⁰.

Fermin Lasala ez zegoen horrekin ados. Bere ustez, bi legeen baliozkotasuna berdina zen biak prozedura berdina jarraituz onartuak izan zirelako, bi legeak estatuko organo gorenak eginak izan zirelako eta biak subiranotasun bakar berdinetik eratortzen zirelako¹⁴¹.

Gainera, Fermin Lasalaren ustez, Bergarako adostasuna ez zen euskal lurraldeen eta estatuaren arteko adostasun bat izan. Tesi hori defendatzeko, *Última Etapa de la Unidad Nacional* liburuan Donostiako politikariak 1839ko urriaren 25eko Legea zein baldintzetan egin zer aztertu zuen eta bertan adostutakoaren edukia nolakoa izan zen.

Bere ustez, 1839an Bergaran sinatu zen eta Euskal Herria lehen gerra karlistari amaiera eman zion paktua kapitulazio bat izan zen. Bergarako adostasuna bi armaden arteko adostasun bat izan zen, lehenengo gerra karlistan borrokatu zuten armada liberala eta karlistaren artekoa. Hitzarmen horretan, ez zuen euskal lurraldeetako erakundeak ordezkatzeko zituen ordezkari batek ere parte hartu eta, horren ondorioz, euskal lurraldeak ez ziren paktu horren partaide izan.

Horretaz gain, Mandaseko dukeak 1839ko hitzarmena sinatu zuen armada karlistak euskal lurraldeak ez zituela ordezkatzeko defendatzen du. Iritzi hori berresteko, *Última Etapa de la Unidad Nacional* liburuan hitzarmena sinatu zuen armada karlistaren unitateen izenak ematen ditu: “*allí aparecen la Artillería, Caballería, Infantería, Ingenieros , el 4 .0 batallón de Castilla, el 3 .0 batallón de Castilla y la 4' .a brigada castellana, la 2.a brigada castellana, pomposa N' prolijamente enumerados al igual,*

¹³⁹LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,102-103.or.

¹⁴⁰*Ibidem*, II,104-105.or.

¹⁴¹*Ibidem*, II,103.or.

cuando no en más, que las fuerzas mandadas por Iturbe mientras faltaban las divisiones alavesa y navarra”¹⁴².

Hori dela eta, Lasalaren iritziz, Bergaran sinatutako adostasuna ez bazen betetzen, euskal lurraldeek legalki ezin zioten hitzarmen hori sinatu zuen alderdietako bati 1839an Bergaran sinatu zuena betetzeko exijitu, nahiz eta hitzarmen horretan sinatu zena euskal lurraldeen aldekoa izan¹⁴³.

Horretaz gain, Fermin Lasalaren arabera, hitzarmen hartan Espainiako Gobernuak ez zen euskal lurraldeetako obligazioak mantentzeko adostasun batera iritsi eta ez zuen foruak errespetatzeko konpromisorik hartu. Hitzarmenean, liberalen aldetik, Espartero jeneralak izan zen obligazio bat bereganatu zuen bakarra, bertan, jeneral liberalak euskal foruen baieztapena edo foruen aldaketa egitea gomendatuko zuela adostu zelako.

Horren ondorioz, Mandaseko dukearen arabera, Espainiako estatua eta bere erakundeak ez zuten adostasun horretan inolako obligaziorik bereganatu. Horren arabera, Espartero jeneralak estatuko organoen aurrean euskal foruak konfirmatzea edo aldatzea gomendatu izan bazuen, ekintza horrekin, legalki Bergarako hitzarmena beteko zen, nahiz eta horren ondoren, Espainiako erakundeek gomendio hori kontuan ez hartu. Hala ere, Lasalak Espartero jeneralaren gomendapenak garrantzi handia eduki zuela onartu zuen, garai hartan Espainian jenerala heroi bat bezala ikusten zelako¹⁴⁴.

Fermin Lasalak lehenengo gerra karlistaren ondoren Bergaran sinatutako hitzarmena eta Espainiako estatuak beste herrialde batekin sinatuko lukeen hitzarmena desberdintzen ditu. Espainiako Gobernuak beste estatu batekin hitzarmen bat sinatzen badu, tratatu hori aldatzeko beste estatuarekin negoziatu behar du. Baina, Bergarako kasuan, hitzarmena aldatzeko, Espainiako erakundeek ez zuten hitzarmena sinatu zuen armada karlistarekin edo euskal lurraldeen erakundeekin negoziatu behar.

Horren ondorioz, Mandaseko dukeak dioenez, Espainiako estatuko erakundeek 1839 urriaren 25eko Legea egiterakoan ezin da esan negoziazio baten ondoriozkoa edo euskal lurraldeekin adostua izan zenik. Bere ustez, Espainiako Gorteek lege hori egin izanaren arrazoia lege hori egitea egokia iruditu zitzaizela izan zen¹⁴⁵.

¹⁴²LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,107.or

¹⁴³*Ibidem*, II,108-109.or.

¹⁴⁴*Ibidem*, II,114-115.or.

¹⁴⁵*Ibidem*, II,115-116.or.

Hori dela eta, Fermin Lasalak 1839ko urriaren 25eko Legea adostasun baten ondorioz izan zela eta, adostasun horren ondorioz, 1876ko uztailaren 21eko Legearengatik edo beste legeengatik desberdintzen zela ukatzen zuen.

Horretaz gain, Mandaseko dukeak Bergarako hitzarmena 1872ko Amorebietako hitzarmenarekin konparatzen du. Bere iritziaren arabera, adostasun hori euskal lurraldeen eta Espainiako Gobernuaren arteko hitzarmen bat bezala har zitekeen. Hitzarmen horretan, 1839ko hitzarmenean ez bezala, euskal autoritate zibilek parte hartu zuten, bertan Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartu zuelako eta foru erakunde horrek adostasuna sinatu zuelako¹⁴⁶.

Gainera, Lasalaren ustez, 1872ko hitzarmenean Bizkaiko Foru Aldundiak ordezkatzeko zituen euskal erakundeek eta Espainiako Gobernuak elkarrekiko obligazioak bereganatu zituzten. Bertan, Espainiako Gobernuak ordezkatzeko Serrano jeneral liberalak, Espainiako estatuaren izenean, euskal lurraldeekiko konpromisoak eta obligazioak adostu zituen eta euskal foruak mantentzeko konpromisoa hartu zuen, beraz, Espainiako Gobernuak hitzarmen horri loturik geratu zen.¹⁴⁷

Hurrengo, Fermin Lasalak estatuaren zati batean estatuko lege bat aplikatu ezin zitekeenaren printzipioa ukatzen du. 1839ko urriaren 25eko Legeak euskal lurraldeak eta beren foruak Espainiako batasun konstituzionalaren barruan geratuko zirela ezarri zuten. Bere iritziz, euskal lurraldeak batasun horren barruan geratzean Espainiako botere legegile bakarraren eta Espainiako subiranotasun bakarraren menpe geratu ziren.

Horren ondorioz, politikari Donostiarraren arabera, Espainiako botere legegilea zuen Espainiako Kongresuak euskal lurraldeetan jurisdikzio osoa zuen. Bere ustez, estatuko botere legegileak estatuko lurraldearen zati batean jurisdikzio mugatu bat edukiko balu, horrek, Espainiako subiranotasun bakarra desegingo luke.

Hori dela eta, Mandaseko dukearen arabera, euskal lurraldeak Espainiako batasun konstituzionalaren barruan zeudenez, euskal foruak Espainiako Gorteen menpe geratu ziren eta erakunde honek foruei buruzko legeak egiteko gaitasun osoa zuen¹⁴⁸.

Gainera, *Última Etapa de la Unidad Nacional* liburuan, politikari donostiarra Espainiako Gorteen emandako lege bat estatuaren lurraldearen zati batean ezin aplikatzearen ideia aurka agertzen da. Bere ustez, horrelako egoerak estatu konfederaletan

¹⁴⁶ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,109-110.or.

¹⁴⁷ *Ibidem*, II,112-113.or.

¹⁴⁸ *Ibidem*, II,121-122.or.

ematen dira eta, horrek, 1839ko urriaren 25eko Legeak ezarri zuen monarkiaren batasun konstituzionala disolbatuko zuen¹⁴⁹.

Hiru lurraldeetako erakundeekin eta beste euskal politikariek in foruen erreformaren inguruan zituen desadostasunen ondorioz, Lasalak Diputatu kargutik dimititu egin zuen. Bere ustez, intransigentzia politikak euskal lurraldeen foruen aldeko kausaren galera ekarriko zuen eta, bere iritziak azaldu izan bazituen, euskal lurraldeen ordezkarien artean gatazkak sortuko zituen eta horrek foruen aldeko kausa oraindik gehiago ahulduko zuen¹⁵⁰.

Fermin Lasalaren arabera, Canovas harriturik geratu zen hiru probintziek foruen murrizketaren aurrean jarri zuten erresistentziagatik¹⁵¹. Politikari Donostiarraren arabera, Espainiako Ministroen Kontseiluko Presidenteak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeei eskaintzen zien foruen erreformak hiru puntu nagusi zituen¹⁵²:

- Hiru lurraldeen organismo foralak mantentzea eskaintzen zuen. Hala ere, bere proposamenean organismoetan aldaketa batzuk egin behar zirela ere esaten zuen.
 - Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban armada espainiarrera zein gizon joan behar zuten ezartzen zuen, *la quinta* Espainiar estatuko beste probintzietan bezala egingo zen. Hala ere, armadara joan beharko zuten lurralde horietako biztanleak zerbitzu militarra armadako unitate berezien barruan egingo zuten, unitate horiek, euskal lurraldeen barruan egongo ziren eta lurralde horietatik kanpo irteteko Ministroen Kontseiluak Errege Agindu bat ematea beharrezkoa izango zen.
 - Hiru lurraldeetako bakoitzak Espainiako Gobernuari ordaindu beharko zion diru kopuru zehatz bat ezarriko zen eta, momentu hartatik aurrera, urte kopuru konkretu batzuetako epean lurralde bakoitzak estatuari eman beharreko diru-ekarpena ezarriko zen, denbora hori igarotzean, beste ekarpen bat ezarriko zen. Proposamenaren arabera, diru kopuru hori, estatuko legeen arabera, erregimen komunean indarrean dauden zergengatik lurralde bakoitzak ordaindu beharko lukeen diru-kopuruarekiko baliokidea izango zen.
- Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban ordaindu beharko ziren zergei dagokienez, Canovasen arabera, euskal lurraldeetan ordaindu beharreko zerga zuzenak estatuko araudiak ezartzen zituen zergen antzekoak izan behar zuten, hala ere,

¹⁴⁹LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,161.or

¹⁵⁰ *Ibidem*, II,135.or.

¹⁵¹ *Ibidem*, II,132.or.

¹⁵² *Ibidem*, II,142-143.or.

lurralde bakoitzak Aldundiak eta Batzar Nagusiek estatuko legearen arabera ezartzen ziren zerga ez zuzenak ordezkatzeko gaitasuna edukiko zuten.

Lasalak dioenez, Ministroen Kontseiluko Presidenteak Gipuzkoako Ahalduen Nagusiari bidalitako gutun batek hiru puntu horietan oinarritutako proposamen bat jasotzen zuen. Hala ere, Ahalduen Nagusiak Foru Aldundiari ez zion gutun horren berri eman¹⁵³.

9.6. 1876KO UZTAILAREN 21EKO LEGEAREN APLIKAZIOA

Canovasek, gerraren ondoren, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruak erreformatzeaz gain, Nafarroak estatuari ordaintzen zion diru kopurua ere handitu zuen. Espainiako Gobernuburuak ekintza hau justifikatzeko, estatuak Nafarroan 1841. urtean baino gehiago inbertitzen zuela argudiatu zuen eta, horren ondorioz, Espainiako Gobernuak Nafarroan inbertitu zuen diru-kopurua lurralde honek Gobernuari eman ziona baino handiagoa zela argudiatu zuen. Ekarpen hori handitzeko, Canovasek Nafarroak zerga zuzenengatik ordaindu behar zuen diru-kopurua handitu zuen¹⁵⁴.

1877. urtearen hasieran, Espainiako Gobernuak Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban 1876ko uztailaren 21eko Legea aplikatzeko neurriak ezartzen hasi zen. Horretarako, 1877ko urtarrilaren 26an Errege agindu bat eman zuen. Agindu horrek lurraldeetako Batzar Nagusiak 1876ko uztailaren 21eko Legea aplikatzeko modua eztabaidatzeko soilik bildu ahal izango zirela ezartzen zuen¹⁵⁵.

Horretaz gain, agindu horrek hiru lurraldeak estatuari diru- eta soldadu-ekarpenak ematen hasi beharko zirela ere ezartzen zuen eta bi ekarpen horiek ezartzera bideratutako neurriak jasotzen zituen. Errege aginduak Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban *la quinta* egin beharko zela ezarri zuen. Gainera, hiru lurraldeetako erakundeek armadara joan behar zuten pertsonak aukeratzeko prozesuan ez bazuten parte hartzen, egoera horretan soldaduen ekarpena egiteko modua zein izango zen ezartzen zuen.

Foru Aldundiak eta udalak agindu horren aurrean erresistentzia pasiboa jartzen bazuten eta *la quinta*-ko prozesua aurrera eramateari uko egiten bazioten, Gobernuak Iparreko Armadaren Jeneral Nagusiari armadara joan behar zuten soldaduak

¹⁵³ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,143-144.or

¹⁵⁴*Ibidem*,II,144.or.

¹⁵⁵*Ibidem*, II,144.or.

aukeratzeko eskumena Lehen Instantziako Epailen Batzarrei transferitzeko baimena ematen zion¹⁵⁶.

Horretaz gain, administrazio ekonomikoak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundien balioak eta kontabilitate liburuak bere gain hartuko zituela esaten zuen. Aginduak esaten zuen Foru Aldundiek datu horiek ematera ukatzen baziren, ekintza hau exekutatu egingo zela.

Fermin Lasalaren arabera, Espainiako Gobernuak Errege agindu hori eman ondoren, hiru lurraldeetan egin zen lehenengo *la quinta* prozesua zailtasun gutxi batzuekin aurrera eraman zen¹⁵⁷. Bere ustez, garai hartan ezinezkoa zen hiru lurraldeetako erakundeek aldetik erresistentzia politika bat aurrera eramatea. Lasalaren arabera, garai hartan euskal lurraldeen biztanleriaren gehiengo handia karlista zen eta karlistek ez zuten Foru Aldundien legearen aurkako politikarekin bat egin¹⁵⁸.

Mandaseko dukearen ustez, foruen krisiaren garaian, karlistek ez zuten foruen alde jardun eta hiru lurraldeetako erakundeak zuzentzen zituzten euskal liberalen aurkako jarrera bat hartu zuten. Bere iritziz, karlistentzat lehentasuna ez zen euskal foruen alde borrokatzea, ideologia honen aldekoentzat lehentasuna erlijioa zen eta foruen defentsa bigarren mailakoa zen¹⁵⁹.

Politikari donostiarraren arabera, *la quinta* egiteko prozesuaren ondoren, Espainiako Gobernuak pentsatu zuen 1876ko uztailaren 21eko Legea hiru lurraldeetan erresistentzia garrantzitsurik gabe ezarri zezakeela. Horretaz gain, legea aplikatzeko lurralde bakoitzeko erakundeek kolaborazioa ez zela beharrezkoa ere pentsatu zuen eta legea euskal erakundeek erresistentziaren aurrean ere aplikatu zitekeela¹⁶⁰.

Hala ere, Fermin Lasalaren arabera, 1877. urtearen hasieran Foru Aldundiak foruen erreformarekiko intransigentzia politikarekin jarraitzen zuten. 1877ko otsailaren 2an Foru Aldundiek 1876ko Legearen aurkako eta euskal lurraldeen foruen murrizketaren aurkako idatzi bateratu bat egin zuten. Idatzi horretan, Aldundiek 1876ko uztailaren 21eko Legearen aplikazioan ezin zutela kolaboratu esan zuten, horrela jardutea lurraldeetako Batzar Nagusiek hartutako erabakien aurkakoa izango zelako.

¹⁵⁶LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,145-147.or.

¹⁵⁷*Ibidem*, II, 148.or.

¹⁵⁸*Ibidem* II, 153.or.

¹⁵⁹*Ibidem*, II, 151-153.or.

¹⁶⁰*Ibidem*, II, 151.or.

Horretaz gain, hiru lurraldeek Espainiako Gobernuari diru-ekarpenak eta soldadu-ekarpenak egiteko, ekarpen horiek foruek ezartzen zutenaren arabera egin behar zirela esan zuten eta ez 1876ko Legeak ezartzen zuenaren arabera¹⁶¹.

9.7. INTRANTSIGENTZIAREN ETA NEGOZIATZEAREN ALDEKOEN ARTEKO BORROKA

Horren ondoren, Gipuzkoako udaletxe askok lurraldeko Batzar Nagusiak biltzea eskatu zuten. Udaletxeek eskaera hori egin eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak Batzarrak biltzea onartu zuen. Beste lurraldeei dagokienez, garai hartan Arabako Batzar Nagusiak ere bildu ziren, baina ez Bizkaikoak¹⁶².

Fermin Lasalaren arabera, 1877ko otsailean bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusietan foruen erreformaren gaian berak *trantsigentzia politika* deitzen zuenaren aldeko adostasun sekretu bat hartu zen, hau da, Espainiako Gobernuarekin 1876ko uztailaren 21eko Legearen barruan foruen erreforma bat negoziatzearen aldeko akordio bat¹⁶³.

Adostasunaren arabera, negoziazioak hiru helburu nagusiren barruan egingo ziren:

- Foru organoa kontserbatuko zen.
- Gipuzkoak Espainiako Gobernuari eman beharko zion diru-ekarpina ezartzeko kopuru bakar bat ezartzea adostuko zen.
- Zerbitzu militarri dagokionez, Gipuzkoan zegoen Mikeleteen gorpua kontuan hartuko zen eta gorpu honek lurraldeari eragiten zizkion gastuak.

Arabako Batzar Nagusietan ere *trantsigentzia politika* nagusitu zen eta lurralde horretako Batzarrak, Gipuzkoako Batzar Nagusiek egin zuten bezala, Gobernuarekin foruen erreforma negoziatzearen aldeko adostasuna onartu zuten.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak Espainiako Gobernuarekin foruen erreformaren inguruan negoziatzeko batzorde bat osatzearen alde bozkatu zuen¹⁶⁴. Batzorde hori bost kidez osaturik zegoen eta kide horietatik lau *trantsigentzia politikaren* aldekoak. Kide horietako bat Fermin Lasala izan zen eta *trantsigentziaren* aldeko beste hiru kideak José Manuel Aguirre Miramon, Eduardo Echeverria eta Nemesio Aurrecoechea izan

¹⁶¹ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 159.or

¹⁶²*Ibidem*, II, 163.or.

¹⁶³*Ibidem*, II, 168-169.or.

¹⁶⁴*Ibidem*, II, 170.or.

ziren. Komisioko beste kidea Javier Barcaistegui izan zen, Llobregateko kondea¹⁶⁵. Araban ere Gobernuarekin negoziatzeko beste batzorde bat osatu zen¹⁶⁶.

Batzorde horretako kideak aukeratu ondoren, Gipuzkoako Batzar Nagusiak desegin ziren. Fermin Lasalaren arabera, bilera hori foruen arabera antolaturiko Gipuzkoako Batzar Nagusien azken bilera izan zen¹⁶⁷. Mandaseko dukearen arabera, *trantsigentzia politikaren* alde zeudenak, momentu hartan, ez zuten behar bezala jokatu. Espainiako Gobernuarekin foruen erreforma negoziatzeko Gipuzkoan izendatu ziren batzordeko bi kidek izendapena onartzeari uko egin zioten. Uko egin zuten bi kide horiek José Manuel Aguirre Miramon eta Llobregateko kondea izan ziren¹⁶⁸.

Fermin Lasalak ere ez zuen batzordeko kide bezala foruen inguruko negoziatzean parte hartu. Bere ustez, Gipuzkoako batzordeko beste bi kideek eta Arabako batzordekideek ez zuten zeregin hori egiteko nahiko mailarik ezta garrantzirik eta, horren ondorioz, ez zuen egokia ikusi pertsona horiekin batera Espainiako Gobernuarekin negoziatzea. Lasalaren arabera, Gipuzkoako batzorderako izendatuak izan ziren bi kidek uko egin eta gero, bera zeregin hori egiteko edozein konpromisotik aske geratu zen.

Horren ondoren, Mandaseko dukeak dioenez, ez zen Espainiako Gobernuarekin euskal foruen erreforma negoziatzeko ordezkaririk geratu eta zeregin horretarako izendatua izan zen Gipuzkoako batzordea bertan behera geratu zen. Horren ondorioz, foruen krisiaren aurrean jarraitu behar zen politika ezartzeko zeregina Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan geratu zen eta erakunde hau *intrantsigentziaren politikaren* aldekoa zen¹⁶⁹.

Arabaren kasuan, lurralde horretako Foru Aldundiaren eta Canovasen arteko negoziazioak egon ziren. Hala ere, negoziazio horren ondorioz ez ziren adostasun batera iritsi¹⁷⁰.

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, Lasalaren ustez, Aldundi hau foruen erreformarekiko intrantsigentzia handiena erakutsi zuena izan zen¹⁷¹. Bizkaiko foru erregimenean bi Ahaldun Nagusi zeuden eta 1876. urtean lurralde horretako Ahaldun

¹⁶⁵ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,172.or

¹⁶⁶ *Ibidem*, II,174.or.

¹⁶⁷ *Ibidem*, II,170.or.

¹⁶⁸ *Ibidem*, II,173.or.

¹⁶⁹ *Ibidem*, II,173-174.or.

¹⁷⁰ LARRAZABAL, "La disolución de los cuerpos de gobierno de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia, la implantación del servicio militar y nacimiento de los conciertos económicos", , 203.or.

¹⁷¹ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II,174.or.

Nagusietako bat Fidel Sagarminaga zen. Mandaseko dukearen ustez, Sagarminaga foruen erreformaren aurkako *intrantsigentzia politikaren* buruzagia izan zen¹⁷².

Politikari donostiarraren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiko bi Ahaldun Nagusien artean gatazka bat egon zen 1876ko uztailaren 21eko Legearen aurrean jarraitu beharreko politikaren aurrean, Ahaldun Nagusi bat *intrantsigentziaren politikaren* aldekoa zen bitartean, beste Ahalduna *trantsigentziaren* aldekoagoa zelako¹⁷³. Horren ondorioz, Gipuzkoan eta Bizkaian Batzar Nagusiak bildu zirenean, Bizkaiko Foru Aldundiaren lurraldeko Batzarraren bilera bat egiteari buruzko eztabaida bat sortu zen, baina Bizkaian, beste lurraldeetan ez bezala, *intrantsigentzia politika* nagusitu zen. Horren ondorioz, beste bi lurraldeetan Batzar Nagusiak bildu eta *trantsigentziaren* aldeko adostasunak hartu ziren bitartean, Bizkaian ez zen bilerarik egon.

Horren ondoren, Bizkaiko bi Ahaldun Nagusiek beren karguak utzi zituzten eta Foru Aldundia desegin egin zen, horren ondorioz, lurralde hau epaileen batzorde batek administratu zuen. Gertakari horren ondoren, Bizkaiko Batzar Nagusiak bildu ziren. Batzar Nagusiek kargua utzi zuten bi Ahaldun Nagusiei berriro ere lurraldeko Foru Aldundiko kargu gorenera itzultzeko eskatu zieten¹⁷⁴.

Hala ere, Ahaldun Nagusi ohiek beren postuetara itzultzeko eskaerari uko egin zioten. Fermin Lasalaren iritziz, horren arrazoia Ahaldun baten intrantsigentzia eta biek foruen krisiaren inguruan zituzten ikuspegi desberdinen ondorioz sortutako eztabaidak izan ziren. Horren ondoren, Bizkaiko Batzar Nagusiek beste bi Ahaldun Nagusi izendatu zituzten eta Foru Aldundia zuzentzen zuen epaileen batzordea bertan behera geratu zen¹⁷⁵.

Horren ondoren, Bizkaiko Batzar Nagusiek foruen erreformaren inguruan hartu beharreko jarrerari buruz eztabaidatu zuen. Lasalak dioenez, garai hartan, Bizkaiko Batzar nagusiak bi alderdietan banatu ziren *intrantsigentziaren politikaren* aldekoak eta Gipuzkoak eta Arabak jarraitu zuten *trantsigentzia politikaren* aldekoak. 1877ko apirilaren 23an alderdietako bakoitzak Batzarren aurrean ebazpen bat aurkeztu zuen, ebazpen bat 1876ko urriaren 4ko intrantsigentziaren aldeko adostasuna berrestearen aldekoa izan zen, bestea 1876ko uztailaren 21eko Legearen barruan foruen erreforma negoziatzearen aldekoa.

¹⁷² LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional* II,144,177.or.

¹⁷³*Ibidem*, II,175.or.

¹⁷⁴*Ibidem*, II,183-184.or.

¹⁷⁵*Ibidem*, II,186.or.

Hala ere, azkenean Bizkaiko Batzar Nagusiek ez zuten bi ebazpenetatik bat onartu. Mandaseko dukearen arabera, hasieran *intransigentzia politikaren* aldekoek aurkeztatutako ebazpena onartuko zela pentsatzen zen, baina, horren ondoren, negoziatzearen aldekoek aurkezturiko ebazpena onartua izatea posible zela ikusi zuten. Lasalaren ustez, egoera horren ondorioz Bizkaiko Batzar Nagusiak desegin egin ziren erabakirik hartu gabe¹⁷⁶.

9.8. EUSKAL FORUEN DEUSEZTAPENA

Horren ondoren, 1877ko maiatzaren 5ean Espainiako Gobernuak Bizkaiari eragiten zion Errege Dekretu bat eman zuen. Dekretu horren arabera:

Artículo 1 .-El Gobierno y administración de los intereses peculiares de la Provincia de Vizcaya se ajustará a las leyes y disposiciones que rijan para el resto de la Nación .

Artículo II .-Se establecerán en la misma provincia todas las contribuciones, rentas e impuestos ordinarios y extraordinarios, consignados o que se consignaren en los presupuestos del Estado, verificándose su imposición y cobranza bajo igual forma y condiciones en que se hace en las demás de la Monarquía .

Lehenengo artikulua, Bizkaiko gobernu eta administrazioa Espainiako arau orokorren arabera arautuko zirelako esaten zuen eta, bigarren artikulua, Bizkaian Espainian indarrean zegoen zerga erregimena ezarriko zela, Bizkaian estatuko aurrekontuen legeak ezartzen zituen kontribuzioa, errenta eta ohiko eta ezohiko zerga guztiak aplikatuz.

Espainiako Gobernuak 1877ko maiatzaren 5eko Errege Dekretua eman ondoren, Bizkaiko foruak eta lurraldeko organo historikoak bertan behera geratu ziren. Fermin Lasalaren arabera, Gobernuak Dekretu hori eman izanaren arrazoia, Bizkaiko erakundeek jarraitu zuten *intransigentzia politika* eta lurraldeko autoritateak Espainiako Gobernuarekin foruen erreforma negoziatzearen aurka agertu zirela izan zen¹⁷⁷. Horren ondoren, Bizkaia epaileen batzorde batek administratu zuen¹⁷⁸.

Lasalaren ustez, garai hartan, Canovasek Gipuzkoa eta Arabaren foru organoak ez zituen deuseztatu lurralde horiekin oraindik adostasun batera iritsi zitekeela pentsatzen zuelako¹⁷⁹. Horren ondorioz, bere ustez, bi lurraldeek 1877ko maiatzean oraindik bere erregimen foralaren zati handi bat

¹⁷⁶LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 187-188.or

¹⁷⁷*Ibidem*, II, 188-189.or.

¹⁷⁸*Ibidem*, II, 190.or.

¹⁷⁹*Ibidem*, II, 188.or.

kontserbatzen zuten. Horretaz gain, Mandaseko dukearen iritziz, 1877 maiatzaren 5eko Dekretua eman eta gero, foruen aldekoen egoera okertu egin zen. Horren ondoren, *intrantsigentzia politikaren* eta *transigentzia politikaren* alde zeudenen arteko gatazka areagotu egin zen eta euskaldunen arteko batasuna guztiz deseginda geratu zen¹⁸⁰.

Fermin Lasalak dioenez, Bizkaiko foruak deuseztatuak izan ondoren, Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundiak ez zuten foruen erreformaren aurrean jarrera argi bat hartu. Bi Aldundiek egoera horretan jarraitu behar zuten politikari buruz, ez zuten erabakirik hartzen *intrantsigentzia politika* jarraitzearen eta Espainiako Gobernuarekin negoziatzearen artean. Horren ondorioz, hainbat hilabeteetan zehar ez zen ez zen ekimenik aurrera eraman foruen krisiaren inguruan. Hala ere, politikari donostiarraren iritziz, egoera hori ezin zen denbora askoan luzatu¹⁸¹.

1877ko irailean Canovas Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bildu zen. Bilera horretan, Aldundiko kideek Espainiako gobernuburuaren foruen erreformaren aurkako jarrera hartu zuten, aurreko hilabeteetan defendatu zituzten ikuspegiekin bat egiten. 1876ko uztailaren 21eko Legea ez zutela onartzen esan zioten eta 1839ko urriaren 25eko Legearen arabera jardungo zutela¹⁸².

1877ko azaroaren 13an Espainiako Gobernuak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeei eragiten zien Errege Dekretu bat eman zuen. Dekretua hiru lurraldeetan 1876ko uztailaren 21eko Legearen 3. artikulua betearaztera bideraturik zegoen. Artikulu horrek, lurraldeek estatuaren gastuak sustatzeko diru-ekarpenak emateko betebeharra zutela ezartzen zuen.

Dekretuak hiru lurraldeetako bakoitzak Espainiako Gobernuari eman behar zion diru-kopuru zehatza ezartzen zuen. Horretaz gain, Aldundi bakoitzak 30 eguneko epean Gobernuari ekarpena nola egin behar zuen adierazteko epea izango zuela esaten zuen¹⁸³. Hala ere, Foru Aldundiek ez zuten 1877ko azaroaren 13ko Errege Dekretua bete. Aldundiek 1876ko uztailaren 21eko Legea ez zutela zertan bete behar uste zuten eta legea eta legean oinarritako arauak aplikatzeari uko egiten zioten. Horren ondorioz, Dekretuaren aplikazioari aurre egiteko, Aldundiek arauaren aurrean erresistentzia pasiboko jarrera hartu zuten¹⁸⁴.

¹⁸⁰ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 190.or

¹⁸¹ *Ibidem*, II, 191.or.

¹⁸² *Ibidem*, II, 192.or.

¹⁸³ *Ibidem*, II, 192-193.or.

¹⁸⁴ *Ibidem*, II, 194.or.

Zerbitzu militarren aplikazioaren kasuan bezala, Espainiako Gobernuak Foru Aldundiek Dekretuaren aplikazioaren aurrean erresistentzia politika bat jarraituko zuela aurreikusi zuen. Baina, kasu honetan, Gobernuak araua betearazteko eskumena beste organo bati ez ematea erabaki zuen¹⁸⁵. Beraz Foru Aldundiek bete beharko zutela erabaki zuten.

Horren aurrean, garai hartan oraindik foru erregimena mantentzen zuten bi lurralde historikoek, Gipuzkoa eta Arabak, Espainiako Gobernuak 1877ko azaroaren 13an eman zuen dekretuaren aurka protestatu zuten.

Arabako Batzar Nagusiak Espainiako Gobernuaren aurrean protestatu zuen. Protesta horretan, Dekretua lurraldearen foru erregimenaren aurkakoa zela adierazi zuen. Gobernuak ez zuen Batzar Nagusiak esandakoa kontuan hartu¹⁸⁶.

Arabako intransigenteek Batzar Nagusietan onartutako protesta *Le Courrier de Bayonne* egunkarian argitaratu zuten¹⁸⁷. Dokumentu horretan, 1332an Araba Gaztelako Koroan adostasun baten ondorioz boluntarioki barneratu zela esaten zuen eta lurraldeko foruak adostasun horren ondorioa izan zirela. Horren ondorioz, Arabako foruek kontratu izaera zutela esaten zen eta 1839ko urriaren 25eko Legeak kontratua berretsi zuela.

Horretaz gain, 1876ko uztailaren 21eko Legearen indarra ukatzen zen. Lege hori 1839ko Legearen aurkakoa zela esaten zen eta lurraldeko foruak bertan behera uzten zituela, horrekin batera, Araba eta Gaztelak sinatu zuten adostasuna hausten zuen. Horren ondorioz, 1876ko Legea Araban ezin zela aplikatu ezartzen zuen estatu foralaren aurkakoa zelako, 1876ko irailaren 8an lurraldeko Batzar Nagusiak onartu zuen adostasuna berretsiz¹⁸⁸.

Horren ondoren, Baionako egunkarian argitaratutako protestak 1877ko azaroaren 13ko Dekretuak 1876ko uztailaren 21eko Legea aplikatzen zuela esaten zuen. Horren ondorioz, lege hori bezala, dekretu hori ezin zela bete esaten zuen, hori egingo balitz, Arabako foruak urratuko zirelako¹⁸⁹.

Gipuzkoari dagokionez, lurraldeko Foru Aldundiak 1877ko azaroaren 13ko Dekretuaren aurkako protesta idatzi bat egin zuen, bertan, Aldundia 1876ko uztailaren

¹⁸⁵LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 193-194.or

¹⁸⁶*Ibidem*, II, 194-195.or.

¹⁸⁷*Ibidem*, II, 197.or.

¹⁸⁸*Ibidem*, II, 198-199.or.

¹⁸⁹*Ibidem*, II, 202.or.

21eko Legea betetzearen aurka agertzen zen. Gobernuak protesta hau ere ez zuen onartu¹⁹⁰.

Horren ondoren, Canovasek Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundiak deuseztatu zituen eta bi lurraldeetako administrazioa epaileen batzordeen eskuetan geratu zen. Epaileen administrazioa probisional izan zen, Gipuzkoan eta Araban Diputazio Probintzialak ezartzen ziren bitartean existitu zen¹⁹¹.

Horretaz gain, Espainiako Gobernuburuak Bizkaiari bakarrik eragiten zion 1877ko maiatzaren 5eko Dekretua Gipuzkoa eta Arabara zabaldu zuen. Horren ondorioz, bi lurraldeetako gobernuak, administrazioa eta zerga-sistema estatuko arau orokorren arabera arauturik geratu zen eta Gipuzkoa eta Arabako foruak bertan behera geratu ziren¹⁹².

Fermin Lasalak Canovasen ekintzak justifikatzen ditu. *Última etapa de la Unidad Nacional* liburuan esaten duenaren arabera, Espainiako Ministroen Kontseiluko Presidenteak garai hartan ez zituen euskal foruak bertan behera uzteko erabakia hartu nahi eta estatuaren batasunarekin bateragarriak ziren foruen elementuak salbatu nahi izan zituen, Espainian biztanleriaren gehiengo handiak foruak gutiz bertan behera utzi nahi izan zituenean¹⁹³.

Lasalaren iritziz, foruen galeraren erantzuleak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeetako autoritateak eta ordezkariak izan ziren. Politikari kontserbadorearen arabera, Espainiako Gobernuburuak 20 hilabeteetan zehar hiru lurraldeetako foruak salbatuko zituen akordio bat eskaini zien, baina, euskal lurraldeek akordioari uko egin zioten. Bere ustez, egoera horrek, Canovas Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruak bertan behera uztea behartu zuen¹⁹⁴.

Fermin Lasalak dioenez, Espainiako Gobernuburuak foruak deuseztatu eta gero ere ez zuen hiru lurraldeekin negoziatzeko asmoa guztiz bertan behera utzi¹⁹⁵. Hala ere, garai hartan, 1876ko uztailaren 21eko Legearen barruan Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak

¹⁹⁰LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 203-204.or

¹⁹¹*Ibidem*, II, 204-205.or.

¹⁹²*Ibidem*, II, 206-207.or.

¹⁹³ *Ibidem*, II, 205-206.or.

¹⁹⁴*Ibidem*, II, 205-207.or.

“Por de pronto quedaba consumada una abolición que con tanto ahínco habían querido evitar Cánovas”
 “¡cuánto más desembarazada sería la situación si la medida que se toma ahora, se hubiera tomado al concluir la guerra o al iniciar su hostilidad las Corporaciones forales! ¡veinte meses de ofertas del Gobierno, de repulsas vascongadas!”

¹⁹⁵*Ibidem*, II, 205.or

negoziatzeko aukera gutxiago zituzten eta mantendu zitezkeen lurraldeen berezitasunak eta autonomia maila gutxiago ziren.

Espainiako Gobernuak hiru lurraldeen foru erregimena deuseztatu eta gero, lurralde horien erregimen tradizionala ez zen berreskuratu eta bertan behera geratu zen¹⁹⁶. Horretaz gain, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako erakundeek hiru lurraldeetako biztanleek zerbitzu militarra egitean edukiko zituzten baldintzei buruz negoziatzeko aukera ere galdu zuten¹⁹⁷.

10. KONTZERTU EKONOMIKOA ETA BERE BILAKAERA

1877. urtean Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foru organoak deuseztatuak izan eta gero, Espainiako Gobernuak emandako Errege aginduz osaturiko Diputazio Probintziales administratzen zituzten hiru lurraldeak. Erakunde berri horietan, *trantsigentzia politikaren* eta Espainiako Gobernuarekin negoziatzearen aldekoak nagusitu ziren¹⁹⁸.

Diputazio Probintzialen ordezkariak Espainiako Gobernuarekin negoziatzeko ordezkariak izendatu zituzten. Negoziazio hauen ondorioz, Gobernuak 1878ko otsailaren 28an Errege Dekretua eman zuen. Dekretu horrek Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren lehen kontzertu ekonomikoa ezartzen zuen. Bere hitzaurrekoaren arabera, 1878ko otsailaren 28an emandako araua 1876ko uztailaren 21eko Legean oinarriturik zegoen, horren arabera, lege horrek Espainiako Gobernuari euskal lurraldeetako egoeraren aldaketak egiteko gaitasuna ematen zion.

Dekretuaren lehenengo artikulua lurralde bakoitzak Espainiako Gobernuari eman behar zion diru kopurua ezartzen zuen. Horren arabera, Bizkaiak Gobernuari 846.718 pezeta eman behar zizkion, Gipuzkoak 787.362 pezeta eta Arabako 540.000 pezeta. Artikulu horren arabera, hiru lurraldeetako bakoitzak estatuari diru-ekarpen horiek urtero eman beharko zizkieten zortzi urteko epe batean¹⁹⁹.

Fermin Lasalaren arabera, kontzertu ekonomikoak probintzia bakoitzari lurraldeko zergak zein izango ziren ezartzeko eta zerga horiek jasotzeko eskumenak ematen zizkion. Politikari donostiarraren arabera, eskumen horien bidez, kontzertu ekonomikoak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari autonomia maila handia ematen zien²⁰⁰.

¹⁹⁶LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 207.or

¹⁹⁷*Ibidem*, I, 513.or.

¹⁹⁸*Ibidem*, II, 209-210.or.

¹⁹⁹*Ibidem*, II, 216-217.or.

²⁰⁰*Ibidem*, II, 307.or.

Mandaseko dukearen arabera, 1878ko otsailaren 28ko Errege Dekretu hori Diputazio Prontzialesk jarraitu zuten *trantsigentziaren* aldeko politikaren ondorioa izan zen. Bere ustez, Diputazioek Espainiako Gobernuaren ekintzen aurrean erresistentzia aktibo edo pasiboa jarri izan bazuten, ezinezkoa izango zen Gobernuak kontzertu ekonomikoa onartzea²⁰¹.

Horretaz gain, Espainiako Gobernuak 1877ko maiatzaren 5eko Dekretua Gipuzkoa eta Araban bertan behera utzi zuen. Horren ondoren, bi lurraldeek ez zuten bere organo historikoak edo bere foruak berreskuratu baina berezitasun batzuk kontserbatu zituzten. Bizkaia berriz, kontzertu ekonomikoak ematen zizkion berezitasunak kenduta, estatuko beste probintzien egoera berdinean geratu zen²⁰². Fermin Lasalak dioenez, horren arrazoia Bizkaiak 1876 eta 1877 urteetako foruen krisian Espainiako Gobernuaren aurrean beste bi lurraldeek baino erresistentzia handiagoa jarri zuela izan zen²⁰³.

1878an ezarri zen kontzertu ekonomikoaren iraupena zortzi urtekoa izango zen. Fermin Lasalaren iritziz, garai horretan hiru lurraldeetako bakoitzak 1878ko otsailaren 28ko Errege Dekretuaren arabera estatuari eman beharko zizkion diru-ekarpenek aldaketa txikiak jasan zituzten. Horren arrazoia liberalen zerga salbuespenen amaiera izan zen. Gerra karlista amaitzean, Espainiako Gobernuak karlisten aurka borrokatu zuten euskal liberaleri salbuespen fiskalak eman zizkien eta lehenengo kontzertu ekonomikoa indarrean zegoen garaian emandako salbuespen horien amaierak lurraldeek estatuari eman behar zioten diru kopurua handitu zuen²⁰⁴.

Hala ere, Canovasek Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren kontzertu ekonomikoa eta adostasun horrek ematen zien autonomia maila behin behineko egoera bezala planteatu zuen. Kontzertu ekonomikoa ezartzearen arrazoia Espainiako Gobernuak hiru lurraldeetan zergak jasotzeko izango zituen zailtasunak izan zen. Espainiako Ogasunak ez zituelako zergak ezartzeko behar zituen hiru lurraldeetako biztanleen datuak eta, hirugarren gerra karlista amaitu eta gero, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako egoera zaila zelako. Lehenengo kontzertu ekonomikoaren epea amaitu eta gero, Canovasen asmoa Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban estatuko beste lurraldeetan indarrean zegoen erregimen fiskal komuna ezartzea zen²⁰⁵.

²⁰¹LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 217.or

²⁰²*Ibidem*, II, 218.or.

²⁰³*Ibidem*, II, 218-219.or.

²⁰⁴*Ibidem*, II, 424,236.or.

²⁰⁵ LARRAZABAL, "La disolución de los cuerpos de gobierno de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia, la implantación del servicio militar y nacimiento de los conciertos económicos" , 212.or.

1886an Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren kontzertu ekonomikoaren epea amaitu zen, garai hartan, Espainiako Gobernuan Sagasta eta berak zuzentzen zuen Alderdi Liberala zeuden. Urte horretan, 1886ko urtarrilaren 12ko Legearen bidez, Gobernuak hiru lurraldeen kontzertu ekonomikoa hurrengo urteko ekainaren 30era arte luzatu zuen²⁰⁶.

1887an Sagastaren Gobernuak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarentzako beste kontzertu ekonomiko bat ezarri zuen. Kontzertu ekonomiko hau 1887ko Espainiako aurrekontu legearen 14. artikulua bidez ezarri zen. Hala ere, 1887ko kontzertu ekonomikoa 1878ko kontzertu ekonomikoaren desberdina izan zen. 14. artikulua ezarri zuen kontzertu ekonomikoaren iraupena zehaztugabea zen eta, horretaz gain, ez zuen kontzertu ekonomiko hori indarrean egongo zen bitartean lurralde bakoitzak urtero Espainiako Gobernuari diru kopuru zehatz bat eman beharko ziola ezartzen²⁰⁷. 1887ko aurrekontu legeko 14. artikulua arabera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeek Espainiako Gobernuari ordaindu beharko zioten Espainiako hurrengo aurrekontu legeek ezarriko zituzten zergen diru kopuruaren baliokidea eman beharko zioten.

Horren ondoren, aurrekontu legearen 14. artikulua euskal lurraldetako bakoitzak estatuari eman behar zion diru kopuruaren aldaketa eragin zezakeen faktore berriak ezarri zituen. Artikulu horren arabera, kontzertu ekonomiko horrek irauten zuen bitartean euskal lurraldeetako baten aberastasun maila aldatzen bazen, egitate hori kontuan hartuta, lurralde horrek estatuari ordaintzen zion diru kopurua aldatu ahal izango zen. Horretaz gain, etorkizunean Espainiako aurrekontu legeetan zergen inposizio baseak aldatzen baziren, horrek ere euskal lurraldeetako bakoitzak estatuari ematen zion diru kopuruaren aldaketa eragingo zuela ezartzen zuen²⁰⁸.

1890eko hamarkadan Espainiako estatua egoera ekonomiko zail batean zegoen. Horren ondorioz, Gamazo izeneko Gobernu Liberaleko Ogasun Ministroak Espainiako Gobernuak Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroak estatuari ematen zioten diru kopurua handitzen saiatu zen. 1893. eta 1894. urteen arteko aurrekontu legeko 17. artikulua lau lurraldeen erregimen fiskalei eragiten zizkien aldaketak ezartzen zituen. Artikulu horren arabera, Nafarroan beste probintzietan aplikatzen ziren zerga eta kontribuzio berdinak ezarriko ziren eta, beste hiru lurraldeetan haien kontzertu ekonomikoak berrikusiko zirela esaten zuen²⁰⁹.

²⁰⁶ ALONSO OLEA, Eduardo, "Manual de negociación del Concierto Económico". *Forum Fiscal*, 2001, 1.or

²⁰⁷ LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 425.or.

²⁰⁸ *Ibidem*, II, 425.or.

²⁰⁹ *Ibidem*, II, 418-419.or.

Hala ere, Nafarroan Gamazo ministroak ezarri nahi izan zuen erreformaren aurrean erresistentzia handia egon zen eta, hori dela eta, Espainiako Gobernuak Nafarroaren erregimen fiskalaren erreforma bertan behera utzi behar izan zuen²¹⁰.

Fermin Lasalaren arabera, Nafarroako eta beste hiru lurraldeetako erregimen fiskalak desberdinak ziren. Nafarroako erregimen ekonomikoa betirako zen eta, horren arabera, Nafarroak estatuari urtero diru ekarpen bakarra eman behar zion, kontribuzio horren jatorria kontuan hartu gabe. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren kasuan berriz, beren erregimen ekonomikoaren izaera ez zen betirako. Horretaz gain, hiru lurraldeetako bakoitzak estatuari eman behar zion diru kopurua ezartzerakoan, lurralde bakoitzak estaturi kontribuzio bakoitzagatik ordaindu behar zion diru kopurua ezartzen zen²¹¹.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari dagokienez, Fermin Lasalaren arabera, hasieran hiru lurraldeetan 1887ko kontzertu ekonomikoaren funtzionamendua positiboki ikusi zuten. Hala ere, 1893an 1887ko aurrekontuen legeak kontzertu ekonomikoan eragin zituen aldaketak negatiboak bezala ikusten hasi ziren eta 1878ko kontzertuaren sistemara itzultzea hobetagoa izango zela pentsatu zuten²¹².

Mandaseko dukearen arabera, 1893an Sagastaren Gobernu Liberala, Nafarroarekin zuen gatazkaren ondorioz, ahulduta zegoen eta beste hiru lurraldeek egoera hori beren kontzertu ekonomikoan aldaketak negoziatzeko erabili zuten²¹³.

1894an Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ordezkariak Espainiako Gobernuarekin kontzertu ekonomiko berri bat sinatu zuten. Adostasun horretan, hiru lurraldeetako bakoitzak estatuari emango zion diru kopurua ezarri zen. 1894ko kontzertu ekonomikoan Gipuzkoak eta Bizkaiak estatuari ematen zioten diru kopurua handituko zela adostu zuten, Arabaren kasuan berriz, bere lurraldeak estatuari eman behar zion diru ekarpena gutxitu zen lurraldearen aberastasun maila jaitsi zela kontsideratu zelako. Kontzertu ekonomiko hau hamahiru urtetarako adostu zen.

Fermin Lasalaren arabera, 1894ko adostasunaren ondoren, 1887ko aurrekontuen legean ezarri zen kontzertu ekonomikoaren sistema alde batera geratu zen. Kontzertu ekonomiko honek lurralde bakoitzak denbora tarte batean estatuari eman beharko zion

²¹⁰LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 420-421.or

²¹¹*Ibidem*, II, 452.or.

²¹²*Ibidem*, II, 425-426.or.

²¹³*Ibidem*, II, 427.or.

diru kopuru zehatza ezarri zuen eta, aldaketa horrekin, 1894ko kontzertu ekonomikoak 1878ko lehen kontzertuaren sistema berdina adoptatu zuen²¹⁴.

1906an beste kontzertu ekonomiko bat ezarri zen. Kontzertu ekonomiko honen sistemak iraun zuen 28 urteetan hiru lurraldeek guztira Espainiako Gobernuari eman behar zioten diru kopurua lauhoiztu egin zen. 1878an hiru lurraldeek batera estatuari eman behar zioten diru kopurua 2.155.658 pezetakoa zen eta 1906an diru kopurua 8.579.901 pezetakoa zen. Igoerarik handiena Bizkaiak jasan zuen, lurralde horrek estatuari eman beharreko kontribuzioa 909.492 pezetatik 4.943.936 pezetara igaro zen²¹⁵.

Mandaseko dukearen arabera, kontzertu ekonomikoaren sistemen ondorioz euskal lurraldeek XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran hazkunde ekonomiko handia izan zuten²¹⁶.

11. KONKLUSIOAK

1. Fermin Lasalaren ustez, XIX. mendean, 1789ko iraultza frantsesa gertatu ondoren, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foruak ezin ziren antzinako erregimenean zuten egoera berdinean mantendu. Bere iritziaren arabera, euskal foruak XIX. mendeko egoerara egokitu behar ziren eta, egokitzapen horrek euskal lurraldeetako foru erregimenaren biziraupena arriskuan jartzen zuen. XIX. mendean foruak mantentzearen inguruan gatazka bat egon zen eta, gatazka horren ondorioz, mende horretan zehar, euskal lurraldeen erregimen bereziak hainbat aldaketa jasan zituen.

2. Lehenengo gerra karlistaren ondoren 1839ko urriaren 25eko Legea eman zen. Lege horrek euskal lurraldeetako foruak Espainiako batasun konstituzionalaren barnean egongo zirela ezarri zuen, beraz, foruak Espainiako erregimen konstituzionalaren menpe geratu ziren. Lege horrekin hiru lurraldeetako foruak murrizturik geratu ziren eta, 1841ean Espartero jeneralak pase forala eta euskal lurraldeen muga zergak bertan behera uztea bezalako neurriak hartu ondoren, euskal foruak oraindik gehiago murriztu ziren.

Hala ere, Mandaseko dukearen arabera, egitate horien ondoren, hiru lurraldeetako foruak ez ziren XIX. mendeko egoerara egokitu. Garai hartan, hiru lurraldeek ez zioten estatuari bere gastuak ordaintzeko ez dirurik ezta armada espainiarrari soldadurik ematen. Egitate horren arrazoia Espainiako Gobernuak hiru lurraldeei sistema

²¹⁴LASALA, *Última etapa de Unidad Nacional*, II, 443-444.or

²¹⁵*Ibidem*, II, 223. or.

²¹⁶ *Ibidem*, II, 224. or.

foralaren arabera ekarpenak eskatzeari uko egiten ziola zen. Hori dela eta, Fermin Lasalaren arabera, garai hartan, ezin zen egoera hori mantendu, euskal lurraldeek zuten egoera Europa osoan bakarra zelako.

3. Hirugarren gerra karlistaren ondoren, Canovas del Castillo gobernuburuak euskal foruak berriz murriztu nahi izan zituen. Helburu hori lortzeko, 1876ko uztailaren 21eko Legea eman zuen. Lege horrek hiru lurraldeei sistema konstituzionalaren araberako diru- eta soldadu ekarpenak egitera behartzen zien, baina, Lasalaren ustez, foruak mantentzen zituen. Hala ere, euskal erakundeek ez zuten legea onartu intransigentziaren politika jarraituz eta, Mandaseko dukeak zioenez, jarrera horrek foruen galera eragin zuen.

Horren ondoren, 1878an hiru lurraldeetako erakundeen eta Espainiako Gobernuaren arteko adostasunaren ondorioz, kontzertu ekonomikoaren erregimena ezarri zen. Hasieran behin-behineko izaera zuen erregimen hori behin betikoa bihurtu zen. Horren ondorioz, hiru lurraldeek beste erregimen berezi bat lortu zuten eta horrekin bere autonomiaren zati bat kontserbatzea lortu zuten. Kontzertu ekonomikoa 1978an Espainiako Konstituzioan jasota geratu zen gaur arte iraun du.

4. Fermin Lasalaren ustez, kontzertu ekonomikoak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari autonomia maila handia eman zien. Hala ere, bere iritziz, foruen krisi garaian egin zen intransigentziaren politikaren ondorioz izan ez balitz, hiru lurraldeek autonomia maila handiagoa mantenduko zuketena eta bere foru erregimena kontserbatu ahal izango zuketena.

5. Nire iritziz, XIX. mendean bizi izan zen sistema foralaren inguruko gatazka euskal lurraldeei estatus berezi bat ematen zien eta estatuaren ideia unitario eta uniformearen arteko gatazka izan zen. Estatuaren ikuspuntu unitario eta uniforme hori lurralde batzuk erregimen partikular bat mantentzearen, subjektu politikoak bezala errekonozitzearen edo estaturi ekarpenak sistema forala bezalako sistema partikular baten arabera egitearen aurkakoa zen. Ikuspuntu unitarioa sistema foralaren oinarrien aurkakoa zen eta euskal foruen krisiaren eta galeraren arrazoia izan zen.

Azkenik, Gradu Amaierako Lan honetan euskal foruek XIX. mendean zehar izan zuten bilakaera, bilakaera horren arrazoiak eta bere ondorioak azaltzen saiatu naiz. Horretarako, hainbat iturri desberdin erabili ditut, batez ere, Fermin Lasalak idatzi zuen *Última Etapa de la Unidad Nacional* liburua.

BIBLIOGRAFIA

- ALONSO OLEA, Eduardo, "Manual de negociación del Concierto Económico". *Forum Fiscal*, 2001
- ARRIETA ALBERDI, Jon, "170 años de la Ley de 25 de octubre de 1839", *Hermes*, 2009, 28-36
- CLAVERO SALVADOR, Bartolomé, "Constitución en común entre Cultura y Escritura: Encrucijada Gaditana de los Fueros Vascos", *Notitia Vasconiae*, 2003, 613-662.
- CLAVERO SALVADOR, Bartolomé, "Entre Cádiz y Bergara: lugar de encuentro de la Constitución con los Fueros", *Anuario de Historia del Derecho Español*, 1989, 205-282.
- EGAÑA, Julian , "*Ensayo sobre la naturaleza y transcendencia de la legislación foral de las provincias Vascongadas*" de Julian Egaña el autor y su obra (1786-1864), Instituto de Derecho Histórico de Euskal Herria, 1996
- LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago, "La disolución de los cuerpos de gobierno de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia, la implantación del servicio militar y nacimiento de los conciertos económicos", *Iura vasconiae* 10, 2013,193-217.
- LASALA Y COLLADO, Fermín, *La separación de Guipúzcoa y la Paz de Basilea*, Madrid: Academia de Ciencias Políticas y Morales, 1895.
- LASALA Y COLLADO, Fermín, *Última etapa de Unidad Nacional*, Madrid: Academia de Ciencias Políticas y Morales,1924.
- LASALA Y COLLADO, Fermín, *Vicisitudes de la monarquía constitucional en Francia*, Madrid, 1878
- MONREAL ZIA, Gregorio," La Ley abolicionista de Fueros de 21 de julio de 1876", *Iura vasconiae* 10, 2013, 29-192.
- RILOVA JERICÓ, Carlos, *Vida del Duque de Mandas(1832-1917)*, Donostia: Kutxa Fundazioa, 2008.